

Hernaniko euskararen ahoskeraren analisi bat

Un análisis de la pronunciación del euskara de Hernani

Une analyse de la prononciation du basque à Hernani

**An analysis of the pronunciation of Basque spoken in
Hernani**

REY ORTIZ, Andoni

Ikertzaile beregaina

andoni@murena.io

ORCID: <https://orcid.org/0009-0005-4811-7085>

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2026i71.335>

1. Hitzaurrea
 - 1.1 Sarrera
 - 1.2 Hernaniko hizkerez
 - 1.3 Helburuak
2. Metodologia
 - 2.1 Hitzun-profilak
 - 2.1.1 Eremu geografikoa
 - 2.1.2 Adina
 - 2.1.3 Generoa
 - 2.2 Grabazioen metodoa
 - 2.3 Fenomenoak deskribatzeko metodoa
 - 2.4 Fonologia-terminoen glosarioa
 - 2.5 Fenomenoak izendatzeko laburdurak
 - 2.6 Fonemak eta alofonoak
3. Ahoskera-fenomenoak
 - 3.1 Nagusiki fonologiari lotutako fenomenoak
 - 3.1.1 Ezabaketak
 - 3.1.2 Asimilazioak
 - 3.1.3 Disimilazioak
 - 3.1.4 Ahultzeak
 - 3.1.5 Indartzeak
 - 3.1.6 Epentesiak
 - 3.2 Morfosintaxiarekin lotutako ahoskera-fenomenoak
 - 3.2.1 Morfosintaxiarekin lotutako ezabaketak
 - 3.2.2 Morfosintaxiarekin lotutako asimilazioak
 - 3.2.3 Morfosintaxiarekin lotutako indartzeak
4. Ondorioak
 - 4.1 Fenomenoen gainean esatekoak
 - 4.1.1 Ohar laburrak
 - 4.1.2 /ɛ/ edo /a/ bokalerako joeraz
 - 4.1.3 Erabilera-helburuaren ikuspegiaz
 - 4.1.4 Fenomenoak eta hitzun-profilak
 - 4.2 Gerora begirakoak

Bibliografia

1. Hitzaurrea

1.1 Sarrera

Euskararen aberastasunaz kezkatuta —gero eta hiztun gehiago egon arren, azken hamabost urteetan erabilera txikitzen ari den honetan (Altuna *et al.* 2022)—, begirada euskalkietako ahozko hizkeran jartzea onuragarria izan daitekeela uste dugu.

Moreno Cabrerak (2024) dio dialektoak direla hizkuntza naturalak, eta estandarra modu hertsagarrian inposatutako aldaera bat besterik ez dela. Hortaz, eta hala dio Zuazok (2000) ere, euskalkietatik aberastu behar genuke estandarra, haietan baitago hizkuntzaren sena, batez ere ahozko eta lagunarteko jardunari dagokionean.

Hernaniko hizkera aztertzeko gogoia umeen hizkera estandarizatzen ari den susmotik sortu zaigu. Izan ere, herriko umeek geroz eta hizkera estandarraigoa darabilte egunerokoan. Ez dugu horren inguruko datu kuantitatiborik jaso eta ez da gure xedea, ikerketa hau hasteko motibazioa baizik.

Lanaren nondik norakoetan murgildu aurretik, har dezagun ikergaiaren ikuspegi orokorrago bat. Euskal dialektologiak aspalditik piztu du zale eta aditu askoren jakinmina: Joanes Leizarragak (1571), Arnaut Oihenartek (1638) eta beste hainbat idazle klasikok gaia jorratu zuten, Bonaparte printzeak (1869) lehen azterketa linguistiko sakona argitaratu zuen eta, gaur egun, Koldo Zuazo da erreferente.

Dialektoak linguistikoki aztertzen dituen lan mordoan dago jada. Zuazok (1998) euskalkien mapa eguneratu bat aurkeztu zuen; eta hamar urtera, liburu xeheago bat (2008), gaztelaniara eta ingelesera itzuliko zena.

Euskalkien gainean ere lan ugari egin dira. Batzuk aipatzearen, Gamindek (1997, 1999, 2000, 2001a, 2001b, 2001c, 2002a, 2002b, 2003, 2004a, 2004b; Gaminde *et al.*, 2005) Bizkaiko hainbat hizkera aztertu zituen, Zuazok (2010, 2013, 2018, 2021, 2006; Zuazo eta Goiti, 2016) Euskal Herriko hainbat txokotakoak jaso ditu, Iglesiasek (2014) Igorreko hizkeraren azterketa sakona egin zuen, eta azken urteotan Caminok (1999, 2015, 2016a, 2016b,

2023) ekialdeko hainbat hizkera aztertu ditu. Aurretik ere, Caminok berak (2000) Beterriko hizkera aztertu zuen —Hernani bertan kokatzen da—.

Hernaniri dagokionean, herriko hizkera linguistikoki aztertu duten lan batzuk aurkeztu dira azken urteotan: Aranburuk (2016) Hernaniko euskararen fonologiako, izen-morfologiako eta aditz-morfologiako ezaugarri bana aztertu zituen, gehienbat diakronikoki. Bestalde, Dobera Euskara Elkartek (2020) herriko hitanoko formak bildu zituen maila sinkronikoan.

Guk hariari jarraitu nahi diogu, hizkerak linguistikoki aztertzea interesgarria delako bere horretan. Jada batzuk ikertu dira, baina zenbat eta gehiago ikertu, euskararen ezagutza osatuagoa izango dugu, eta, hala, aberatsagoa.

Hizkuntza, dialekto edo aldaera lokalago baten deskribapen linguistikoe-tan, hainbat alor bereiz daitezke: unitate txikienetatik hasita fonetika, fonologia, lexikoa, morfologia, sintaxia, semantika eta pragmatika, besteak beste. Lan honetan ahoskera aztertuko dugu, eta hainbat alorrek dute eragina horretan. Fonologiak eragin handia du, baina morfosintaxiak, prosodiak eta are semantikak ere zerikusia dute. Horregatik, nahiago izan dugu kategorien zurruntasuna alde batera utzi eta, oro har, ahoskeraz hitz egin. Funtsean, ahoskeraren sakoneko egitura eta haren azaleko aldaketak aztertuko ditugu, maila sinkronikoan, gertatzen diren ahoskera-fenomenoak deskribatzeko.

1.2 Hernaniko hizkerez


Gipuzkoan dagoen herria da Hernani, zehatzago, Beterri eskualdeko Buruntzaldea azpieskualdean. Erdialdeko hizkera da bertakoa, eta, Zuazoren (2008) arabera, hizkera horren sorlekua Beterri bera da. Alabaina, Hernanin bi aldaera diatopiko bereiz daitezke, herrian dauden bi ibar nagusiekin bat datozenak.

Azpiko mapan bi hizkeren eremu geografikoak nabarmendu ditugu: horiz, Buruntzaldeko hizkera —hemendik aurrera *kalekoa*—, Astigarragan, Hernaniko erdialdean, Urnietan eta Andoainen egiten dena. Morez, Urumeal-

deko hizkera —hemendik aurrera *Urumealdekoa*—, Hernaniko erdialdetik hasi eta Urumea ibaian gora Arano eta Goizueta ingururaino doana. Azken hizkera horrek goi-nafarraren eragina du, are nabarmenagoa dena ibaian gora egin ahala. Lerro laranja Hernani udalerraren muga adierazten du.

Bi hizkerak isoglosaz bereiz daitezke, baina nortasun-ezaugarri ezberdinak ere badituzte bateko eta besteko hitzunek¹. Lanean bi eremu hauetako hitzunik elkarriketatu ditugu, ez bi aldaera horien aldeak erakusteko, baizik eta lagina osatuagoa izan dadin. Alde horiek xeheago ulertzeko, berarizko ikerketa bat egitea komeni da.

1. irudia. Hernani inguruko hizkeren erabilera eremuak



Iturria: <https://openstreetmap.org> (d.g.), geuk editatua.

¹ Horren erakusle da Urumealdeko Erenotzu auzoak *auzo-udal* estatus administratiboa lortu zuela 2005ean (Ereinoztuko Auzo Udala, d.g.).

1.3 Helburuak

Lan honen helburu nagusia Hernaniko euskararen ahoskeraren ikuspegi orokor bat ematea da, ez fenomeno jakinetan sakontzea. Lan honetako orokortasunetik abiatuta, gertakari jakinak xehetasun handiagoz azter litezke beste ikerketaren batean. Helburu nagusi horri eusteko, herriko ahoskeran aurkitu ditugun fenomenoak identifikatu eta deskribatu ditugu. Behin hori eginda, fenomenook bi multzotan sailkatu ditugu: nagusiki fonologiari lotutakoak eta morfosintaxiarekin zerikusia dutenak.

Oro har, soinuek dituzten alternantziak jaso ditugu: sakoneko egitura ezagututa, azalekoan gertatzen diren aldaketak. Fenomeno bat nagusiki fonologiari lotua dela diogunean, edozein hitzekin gerta daitekeela esan nahi da. Horrek ez du esan nahi aldiro gertatuko denik —hautazkotasuna ez dugu aztertu—, baizik eta edozein kategoriatako hitzetan gertatzen dela. Morfosintaxiarekin zerikusia duten fenomenoak ez dira edozein hitzetan gertatuko, hitz edo morfema gramatikal jakinetan baizik.

Esan bezala, ez dugu ziurtatzen hemen aurkeztutakoak beti betetzen diren arauak direnik, patroï jakin bati jarraitzen dioten fenomenoak baizik. Hortaz, fenomeno bakoitza zenbateraino den hautazko edo «derrigorrezko» argi esan ahal izateko, ikerketa espezifikoko bat egitea komeni da.

Bestalde, hizkuntza-aldaerak aztertzea handitxo geratzen zaigulakoan, elkarrizketatutako hiztunen ekoizpen efektiboa aztertuko dugu lan honetan, kontuan hartu gabe jasotakoak beste hizkeretako edo euskara batuko ezaugarriak diren. Izan ere, konplexua iruditzen zaigu esatea zein den aldaera jakin bateko forma estandarra, aldaera askok baldintzatzen dutelako hiztunen ekoizpena —diatopikoak, diastratikoak eta are diafasikoak ere—. Azken finean, hiztunen ekoizpen efektiboa da gaur egun Hernanin egiten den euskara.

Lan honetan sei prozesu fonologiko topatuko ditugu (Oñederra 2004). Ahultzeetan, ahoskatzeko behar den indarra gutxituz aldatzen da soinu bat, adibidez, [r] [r̥] bihurtzea. Asimilazioetan, soinu batek ondoan duen beste soinu baten ezaugarri fonologikoren bat hartzen du; adibidez, kontsonante ahoskabe baten ondoren /β/ ahoskabetu eta [p] bihurtzea. Disimilazioak

kontrako prozesua dira, soinu bat ondoan duen beste baten ezaugarrietatik aldentzea; esaterako, /a/ bokala alboan dutenean, /e/ eta /o/ bokalak hurrenez hurren [i] eta [u] ahoskatzea. Epentesietan —*sartze* ere deitutakoe-tan— sakoneko egituran ez dagoen soinu bat sartzen da azaleko egituran, adibidez, hiato bateko bokalak banantzeko [j̥] sartzea. Ezabaketetan, soinu bat ezabatzen da, esate baterako, bokal artean [Ǿ] ezabatzea. Azkenik indartzeak ditugu —ahultzearen kontrako prozesua—, zeinetan airearentzako oztopo txikia den soinu bat oztopo handiago bilakatzen den, adibidez, /i/ bokala [j̥] kontsonantea bilakatzea.

2. Metodologia

Hernaniko hizkerako ahoskera-fenomenoak aztertzeko, hiztunen ahozko jarduna izan dugu oinarri, zortzi hiztunena hain zuzen. Hasteko, hiztun-profilak zehaztu ditugu, eremu geografikoaren, adinaren eta generoaren arabera. Hala, ibarreko bina gazteren (mutil eta neska) eta bina adinekoren (gizon eta emakume) grabazioak erabili ditugu, eta beste hainbeste kalean. Ikerketaren denbora-mugarengatik, kaleko adinekoren grabazioak Ahotsak.eus webgunetik hartu ditugu. Beste guztiak (sei hiztun) guk elkarrizketatu eta grabatu ditugu.

Kaleko gizonaren ekoizpena bi pasarte hauetatik hartu dugu:

— <https://ahotsak.eus/hernani/pasarteak/her-038-012/>

— <https://ahotsak.eus/hernani/pasarteak/her-038-002/>

Hernaniko emakumearena, beste bi hauetatik:

— <https://ahotsak.eus/hernani/pasarteak/her-035-023/>

— <https://ahotsak.eus/hernani/pasarteak/her-035-003/>

Ondoren, grabazioak transkribatu eta ahoskera-aldaketak identifikatu ditugu, analisi fonetikorako tresna informatikorik erabili gabe (Praat kasu). Hiztunen ekoizpeneko antzekotasunei erreparatuta, adibideak taldekatu eta fenomenoak erauzi ditugu; horretarako fonologia sortzaileko formulak izan ditugu oinarri —Chomsky eta Halleren (1968) lan garrantzitsutik abiatuta gaur arteko eragina izan duen ikusmolde teorikoa, alegia—. Teoria horretan

asumitzen da azaleko egituraren sakonean beste egitura bat dagoela, eta horrela soinuek jaso ditzaketan aldaketak errazago uler ditzakegula. Esan liteke sakoneko egitura abstrakzio bat dela, aldaketarik (asimilaziorik, disimilaziorik, epentesirik, ezabaketarik, ahultzerik edo indartzerik) jaso ez duen soinu baten azpiko egitura edo forma. 1980ko hamarkadatik aurrera, fenomenoak islatzeko formulak eta moduak aldatuz joan dira, baina oraindik sakoneko zein azaleko formak daudela onartzen da. Guk ere horrexeri eutsiko diogu.

Azkenik, fenomenoak erabilera-helburuaren arabera sailkatu eta, besteak beste, fenomenoaren ekoizpena hiztun-profilen arabera kuantitatiboki aldatzen den labur aztertu dugu, lan honetatik beste ikerketaren bati bidea urratzeko asmoz, besterik ez.

2.1 Hiztun-profilak

Hiru ezaugarriren arabera hautatu ditugu hiztunak: eremu geografikoa, adina eta generoa.

2.1.1 Eremu geografikoa

Sarreran azaldu dugunez, Hernanin bi azpi-hizkera daude: kalekoa eta ibarrekoa. Azpi-hizkeren artean alde lexiko, fonologiko, morfologiko eta are prosodikoak dauden susmoa dugu, lan honetan aztertuko ez baditugu ere. Ikerketa osatuagoa izan dadin, bi eremuetako hiztunak aukeratu ditugu: Hernaniko kalean hazitakoak eta Urumealdekoak —Ereñotzukoak eta Pa-goagakoak, hain zuzen—.

2.1.2 Adina

Adinari dagokionez, bi multzo egin ditugu. Batean, 20 eta 35 urte arteko gazteak. 20 urte inguru bete arte, hiztunen hizkera nahikotxo aldatzen dela uste dugu, bai eta beste hizkeren eragina eta hiperzuzenketa bereziki nabar-

menak direla ere. Hortik aurrera, hizkera nahikoa egonkortuta dagoela iruditzen zaigu. Gazteei 35 urteko muga ezarri diegu, adin horretan hasi ohi direlako seme-alabak izaten, eta horrek ere —gurasotasunak eta horrekin datorren aldaketa soziolinguistikoak— hizkera aldatu lezakeelako. Bestean, 75 urtetik gorako pertsonak sartu ditugu, are eta adinekoagoak hobeto. Multzo horretan, eskolan euskararik jaso ez duten pertsonak bilatu ditugu, eta 75 urte adin egokia iruditu zaigu, ikastolen 1960ko loraldian jada gazte-txoak zirelako —2024an 75 urte zituztenek 10-11 urte zituzten 1960an—.

2.1.3 Generoa

Genero-rolak hizkeran eragina izan dezaketelakoan gaude, batez ere adineko hiztunek euskara erabilera-esparru ezberdinetan erabiliko dutelakoan. Chambersen ([1995] 2003) arabera, emakume batzuek —adinekoek gehienbat— aldaera estandarreko ezaugarriak hartzeko joera dute, etxetik kanpoko lanbideei esker lortu ezin duten prestigio soziala hizkera estandarraz jasotzeko asmoz. Gaur egungo gazteen egoera ezberdina da, besteak beste, ez dagoelako hainbesteko lan-segregaziorik. Hala ere, aldeak egon daitezkeenez, bi generoetako hiztun gazteak hartzea erabaki dugu.

Generoak hizkeran eduki lezakeen eragina kontuan hartzeko eta ikerketan parekidetasuna bultzatzeko —historikoki emakumeei eman ez zaien arreta emateko—, gizon- eta emakume-kopuru bera hautatu dugu.

2.2 Grabazioen metodoa

Hiztunen ohiko hizkera lortzeko, erregistro informala mantentzea funtsezkoa iruditu zaigu, bestela, hiztunek erregistroa aldatu eta, agian, haien hizkera estandarizatuko zutelakoan. Horregatik, hiztun gehienak gune publiko eta ohikoetan elkarriketatu genituen —parkeetan eta taberna bateko terrazan—; ibarreko adinekoak beren etxeetan elkarriketatu genituen.

Tokia tentuz aukeratzearekin batera, grabagailua ere halaxe aukeratu genuen, eta mugikor soil bat erabili genuen; mikrofono profesionalago bat erabiltzekotan, hiztunak urduritu eta erregistroa aldatu zezaketela pentsatuta. Gaur egungo mugikorren grabazio-kalitatea ona da, nahikoa hiztunen ekoizpena bereizteko. Kalitatea ziurtatzeko, guk 44,1 kHz-eko lagin-tasan grabatu dugu.

Bi hautu horiei esker, hiztunen ekoizpena oso arrunta izan zen; arrunta-goa adinekoen kasuan, gazteek, urduritasunak jota, herriko hizkera estandarizatzen zutelako noizean behin.

Teknika alde batera utzi eta hiztunen ekoizpenari lotzen bagatzaizkio, esanguratsua da gazteek askoz ere etorri txikiagoa dutela, edo elkarrizketarako joera; adinekoek, aldiz, denbora gehiago irauten dute gai baten inguruan hizketan, bakarrizketatik gertuago. Gazteen grabazioetan galde-erantzun zati gehiago daudenez, haien transkripzioak luzeagoak dira, elkarrizketan denbora gehiago behar delako ekoizpen-kopuru bera lortzeko. Hiztun bakoitzaren ekoizpen propiotik bi orrialde inguru betetzeraino transkribatu ditugu, hain zuzen, Urumealdeko emakumearen 8:20 minutu, Urumealdeko gizonaren 6:30, Urumealdeko mutilaren 7:03, Urumealdeko neska-karen 5:50, kaleko emakumearen 5:29, kaleko gizonaren 9:40, kaleko mutilaren 6:10 eta kaleko neska-karen 11:02.

2.3 Fenomenoak deskribatzeko metodoa

Fenomenoak sintetikoki deskribatzeko, fonologia sortzaileko formulak erabili ditugu². Haietan, aldaketak balio bitarreko ezaugarri fonologikoez adierazten dira. Aldiz, + edo – balioa duen fonema-talde naturalik ez da goenetan, balio bakarreko ezaugarriak (monobalenteak) erabili ditugu.

² Fonologia sortzaileko formulen egituraz gehiago jakiteko, jo *The Basic Tenets of Generative Phonology* (Al-Hindawi eta Al-Aadili 2018) artikulura.

Jarraian formula bat txertatu dugu, adibiderako:

$$\emptyset \rightarrow \left[\begin{array}{c} KOR \\ + \text{jarraitu} \\ - \text{aurreko} \end{array} \right] / \left[\begin{array}{c} + \text{goiko} \\ - \text{atzeko} \end{array} \right] - [- \text{konts.}]$$

Azpimarratu beharra ikusten dugu formulotan ezaugarri-bikote fonologikoak erabili ditugula, ez deskribapen fonetikoak. Horrek esan nahi du, adibidez, + *hedatu* erabiliko dugula *lepokari* termino fonetikoa adierazteko, eta – *hedatu* apikari esateko.

Formula sortzailez gain, fenomeno bakoitzean adibide gutxi batzuk eman ditugu, hain zuzen *toki* berean prozesu bakarra aplikatzen dutenak, fenomeno errazago uler dadin. Izan ere, grabazioetan jasotako hitz mordo batean, fenomeno bat baino gehiago aplikatzen da *toki* bakar batean, eta horrek gertakari bakoitza argi ikustea eta ulertzea zailtzen du. Kasu batzuetan, ordea, hainbat fenomeno kateatzen dituzten adibideak gehitu ditugu, azaldu nahi den fenomeno xeheago ulertzeko. Horretarako taulak erabili ditugu, zeinetan zutabe bakoitzean eratorpen bakar bat jasotzen den.

Fenomenoen adibide gisa aurkeztutako ekoizpen-zatiak hiru zutabetan antolatu ditugu: lehenengoan, barra etzan artean, sakoneko forma jaso dugu. Bigarrenean, parentesi karratu artean, ekoiztako forma adierazi dugu. Hirugarrenean, batzuetan bakarrik erabilitakoan, formaren adiera estandarra gehitu dugu, kakotx artean.

Hiztunen ekoizpena —hau da, adibideak— Nazioarteko Alfabeto Fonetikoa (NAF) erabiliz transkribatuta eman dugu. NAF ikur eta diakritikoak erabiliko ditugu ekoiztako soinuak zehaztasunez adierazteko. Diptongo-etako bokal ez-silabikoak diakritikoz adierazi ditugu, ez erdibokal gisa. Bestalde, aurreko/atzeko erdiko bokal bakarra duten hizkuntzetan (euskara kasu), bokal horrek beheanzko joera du, benetako erdiko posizio bat hartzerakoa (Martínez-Celdrán *et al.* 2003). Posizio hori adierazteko dagokion NAF diakritikoa erabili dugu.

2.4 Fonologia-terminoen glosarioa

Euskal Fonetika-Fonologiaren Ikasketarako Gaiak (Jauregi eta Oñederra 2015) ikasliburuan jasotako euskarazko termino fonologikoak erabili ditugu lan honetako formula fonologikoetan. Termino gutxi batzuk Gussenhoven eta Jacobsek (2017) deskribatutakoak itzulita erabili ditugu, hain zuzen, balio bakarreko tasunak (beti positiboan), eta baita \pm *distributed* ere —ez dugulako Jauregi eta Oñederraren 2015eko lanean aurkitu—:

1. **taula.** Jauregi eta Oñederrak (2015) proposatutako terminoez gain erabili ditugun terminoak, geuk sortuak

Ingeleseko terminoa	Geuk erabilitako euskarazko ordaina
\pm distributed	\pm hedatu
dorsal	dorsal (DOR)
labial	ezpainkari (EZP)
coronal	koroari (KOR)

Formulak arintzearren, ohiko euskal termino batzuen laburdurak erabili ditugu, hain zuzen, *sudurkari* beharrean *sudur.*, eta *kontsonantiko* beharrean *konts.*

2.5 Fenomenoak izendatzeko laburdurak

Fenomenoei izena emateko, bakoitzean gertatzen den prozesu fonologikoaren laburdura erabili dugu: AH, ahultzea; AS, asimilazioa; DI, disimilazioa; EP, epentesia; EZ, ezabaketa; eta IN, indartzea.

Bistan denez, prozesuaren euskarazko izenaren lehen bi hizkiak erabili ditugu laburdurretan. Prozesu bera duten fenomenoak ezberdintzeko, laburduraren ondoren zifra bat gehitu diogu bakoitzari. Fenomeno bakoitzari zein zifra jarri diogun erabat arbitrarioa da.

Antzekotasun handia duten fenomenoak ezberdintzeko —esaterako, hainbat kontsonante koroari sabaikaritzen dituzten asimilazioak—, edo jatorriz prozesu berbera duten bi fenomeno testuinguru oso antzekoetan gertatzen direnean —adibidez, bokal baten ostean edo bokal baten aurrean, alfabeto latinoko hizkiak gehitu ditugu zenbakitzezifren ostean: AS1a, AS1b, AS1c, EZ3a, EZ3b, EZ4a, EZ4b eta abar—.

Morfosintaxiarekin zerikusi nabarmena duten ahoskera-fenomenoak ezberdintzeko, izenaren hasieran MS laburdura jarri diegu. Horrela sortzen dira honelako izenak: MSAS2, MSEZ1, MSIN1 eta abar.

Azkenik, fenomeno batek behar lukeen soinua sortu ordez, testuinguruarengatik alofono bat ematen dutenean, kakotx bat gehitu diogu izenaren bukaeran, zertxobait ezberdina dela adierazteko: MSAS1 eta MSAS1'.

2.6 Fonemak eta alofonoak

Hernaniko hizkera euskara denez, ez ditugu euskara estandarreko fonemak eta alofonoak azalduko, jakintzat ematen ditugulako (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003). Atal honetan Hernaniko hizkerak dituen soinuak, fonemak eta alofonoak azalduko ditugu, baita hiztunen joerak eta beste xehetasun batzuk ere.

Hernaniko hizkeran ez dago /h/ fonema. Edonola, hasperena gauza dezakete hiztunek, /x/ren ahultze fonetiko gisa. /x/ da estandarreko jotari esleitutako fonema, ez /j/. Azken hori —gehienetan /j/ dena, zuzenago izateko— soinu epentetikoa edo alofinoa izan daiteke.

Batuko zri esleitutako fonema ezberdina da adinekoen eta gazteen hizkeran. Gazteena lepokaria da —/s̺/, + hedatua— eta adinekoek, berriz, apikariagoa —/s̺/— egiteko joera dute. Berdintsu gertatzen da afrikatuetan: gazteena /t̺s̺/ da, eta helduek /t̺s̺/-rako joera dute. Edonola ere, adinekoek bi fonemak ezberdintzen dituztela iruditu zaigu, hau da, *z* eta *s* fonemak ezberdinak direla nahiz eta nahiko antzekoak izan. Sinplifikatzearen, formuletan gazteen *z* erabili dugu fonema komun gisa, baina adibideetan adinekoen aldaera apikariagoak ere gehitu ditugu.

Afrikatuei dagokienez, badirudi ez dela arrunta $\widehat{tʃ}$ fonema gisa erabil-tzea, estandarreko fonema horren ordezt $\widehat{tʃ}$ egiten delako Hernanin. Bali-teke $\widehat{tʃ}$ fonema gisa ez edukitzea sabaikaritze afektibo lexikalizatua izatea, fonema-errepertorioaraino iritsitakoa.

Badago gazteen eta adinekoen artean ezberdina den beste joera bat, in-guruko hizkeretan eta gaztelanian ere gertatzen dena: duela hamarkada batzuk, $/\Lambda/$ eta $/j/$ fonema ezberdinak ziren oro har, eta aztertutako adineko hiztunentzat hala diruela dirudi. Aldiz, $/\Lambda/$ ez dago gazteen soinu- eta fonema-errepertorioan, eta adinekoek $/\Lambda/$ egingo luketen egoeretan, gaz-teek $/j/$ egiten dute —agian, adinekoen $/\Lambda/$ gazteek berea duten $/j/$ soinua dela interpretatzen dutelako—. Belaunaldien arteko alde hori AS1c feno-menoan (§ 3.1.2) ikusi daiteke, adibidez.

3. Ahoskera-fenomenoak

3.1 Nagusiki fonologiari lotutako fenomenoak

Atal honetan gehienbat fonologiarekin zerikusia duten fenomenoak jaso ditugu, horietan hizkuntzalaritzako beste alor batzuen eragina ez baita hain nabarmena. Fenomenoak prozesuaren arabera multzokatu ditugu. Mul-tzoen zein barruko fenomenoaren ordenari dagokionez, ikerlanean adibide-kopuru handiena dutenetatik gutxien dutenera ordenatu ditugu, ez alfabe-tikoki.

3.1.1 Ezabaketak

EZ1: $/r/$, $/\ddot{r}/$ eta $/\gamma/$ -ren ezabaketa

+ ahots
 $[^+ \text{jarraitu}] \rightarrow \emptyset / [\text{konts.}]_1 - [\text{konts.}]_2$
 KOR
 DOR

Hau da Hernaniko hizkerako fenomeno fonologikorik emankorrena, kontsonante jarraitu ahostun bat —hurbilkaria edo ttaka— galtzea bokal artean. Etengabe gertatzen da, eta kaleko zein ibarreko genero eta adin guztietako hitzunek egiten dute. Hona hemen adibide batzuk:

/i.ku.ʒi. ʃeṭ/	>	[i.ku.ʒi. eṭ]	
/a.te.ɾa. ʃi.ɾe.nak/	>	[a.te.a i.e.nak]	
/bi.ʃa.li/	>	[bi.a.li]	
/pa.ʒa.ʃi.ʒu.a/	>	[pa.ʒa.i.ʒu.a]	‘pasadizoa’
/bi.ʒi.mʊ.ʃu.a ʃa/	>	[bi.ʒi.mʊ.ʃu.a a] ³	‘bizimodua da’
/o.raiṇ.ḡik/	>	[o.aiṇ.ḡik]	
/o.ri.ʃe/	>	[o.i.ʃe] ⁴	
/ge.ɾoʒ.tik/	>	[ge.ɾoʒ.tik]	‘geroztik’
/be.ɾa/	>	[be.a]	
/u.ɾa/	>	[u.a]	‘hura’
/e.ʒu.ral.ḡi/	>	[e.ual.ḡi]	
/e.ʒo.te/	>	[e.o.te]	
/ʒa.ʒar.ʃo.a/	>	[ʒa.ar.ʃo.a]	
/e.ʒa.ʒu.tu/	>	[e.ʒau.tu]	‘ezagutu’

Formulan ikusten denez, hurbilkariak diren kontsonante koroari (kor.) eta dortsalei (dor.) bakarrik eragiten die fenomenoak —[r], [ʃ] eta [ʒ] hurbilkariei⁵—, baina ez ezpainkariei (ezp.). Horren erakusle da *hobe*, *labe*, *alaba*, *iloba*, *kobazulo* eta tankerako hitzetan ia ezabaketarik ez gertatzea⁶.

³ Seguruena, hemen ez da /bi.ʒi.mʊ.ʃu.a/ hitzeko [ʃ]-a ezabatu, bestela, hiru bokal jarraian geratuko lirakeelako: /o.u.a/. Hizkuntza gehienetan CVCV silaba-egitura bilatzen da. Hauxe dio Hymanek (1975: 161-162) horren gainean: «Thus, rules of insertion or deletion of segments are natural to the extent that they produce more natural syllable structures».

⁴ /r/ fonema ezabatu ondoren, /i/-a irristari bihurtu da hiatoa ekiditeko.

⁵ [j] koronal hurbilkari ahostuna izanagatik ere, ez du fenomeno hau jasaten, ez baita fonema.

⁶ [β] alofonia, beste hurbilkari ahostunen aldean, ez da hain maiz ezabatzen. Gure datuetan, adibide hauek bakarrik topatu ditugu: /a.ma.βir.xip/ > [a.ma.ir.xip] eta /a.pɾo.βe.ʃa.tu/ > [a.pɾo.e.ʃa.tu].

Fenomenoa aplikatzerakoan joera bat dago: V_1 eta V_2 errokoak baldin badira, kalitate ezberdinekoak dira. Bestela, kasu bakan batzuk kenduta —lexikalizatuak gehienbat—, ez da ezabaketarik gertatzen. Adibideak azpian:

/ga.raɪ/ > */ga.aɪ/
 /iŋ.gu.ru/ > */iŋ.gu.u/
 /sa.ɣar/ > */sa.ar/⁷

Aldiz, fenomenoak bi hitz edo morfemaren artean gertatzen bada horietako bat kategoria funtzional batekoa denean, ezabaketa gertatzen da, V_1 eta V_2 kalitate berdinekoak izanda ere:

/ba.ð̥a.kiɕ.kiɪ/ > [ba.a.kiɕ.kiɪ]
 /e.ɣ̥i.a ð̥a/ > [e.ɣ̥i.a a]
 /ku.riɔ.ɣ̥u.a ð̥a/ > [ku.riɔ.ɣ̥u.a a]⁸ ‘kuriyoso da’

EZ2: kalitate bereko soinuaren ezabaketa

Kalitate bereko bi soinu segidan ahoskatzea ez da oso ekonomikoa, eta horri aurre egiteko, hiru irtenbide nagusi daude: bi soinuaren artean eten bat egitea; geminatzea (kontsonanteen kasuan) edo luzatzea (bokalenean); edo bi soinuetako bat ezabatzea.

Fenomeno multzo honetan hirugarren irtenbidea baliatzen da. Ez da erraza jakitea bi soinuetako zein ezabatzen den, baina hainbat adibide medio, lehena ezabatzen dela ondorioztatu dugu. Horren adibide garbiena EZ2c fenomenoaren analogiaz sortua dirudien forma hau da: /eɾ.ɖ̥e.raɣ̥ ɣ̥ar.

⁷ Grabazioetan eta kalean entzun daitekeenez, batzuetan /ɣ̥a.ar.ð̥ɔ.a/ esaten da /ɣ̥a.ɣ̥ar.ð̥ɔ.a/ ordez. Gure ondorioa hitz elkartuetan ezabaketa aplikatzen dela da.

⁸ Hitzunengandik jaso ez badugu ere, jakin badakigu beste bokalekin ere berdin gertatzen dela; adibidez, /e̥.ka.ri ð̥iɪ/ > [e̥.ka.ri iɪ] kasuan.

$\widehat{t\check{s}e\grave{i}.cu\grave{t}}/ > [e\check{r}.d\check{e}.ra\grave{ }sar.\widehat{t\check{s}e\grave{i}.cu\grave{t}}]$. Nahiz eta akats bat izan, fenomeno mul-tzoaren sakoneko logika agerian uzten duelakoan gaude.

EZ2a: $V_1V_1 \rightarrow V_1$ ezabaketa

agoiko *agoiko*
 $[\betaatzeko] \rightarrow \emptyset / _ [\betaatzeko]$
γbeheko *γbeheko*

Kalitate bereko bi bokal elkartzean bat ezabatzean datza. Bi modutan gertatu daiteke:

1. Bokalak hitz baten bukaeran eta hurrengoaren hasieran elkartuta:

$/\check{o}.s\check{o}\ \check{o}\check{n}.d\check{o}/$	$> [o.s\check{o}\check{n}.d\check{o}]$	
$/t\check{a}\ a\check{i}m.\beta\check{e}s.t\check{e}/$	$> [t\check{a}i\check{m}.\beta\check{e}s.t\check{e}]$	
$/t\check{a}\ a.t\check{a}l.d\check{e}.k\check{o}/$	$> [t\check{a}.t\check{a}l.d\check{e}.k\check{o}]$	‘eta arratsaldeko’
$/i.t\check{i}i\ i\check{t}\check{e}/$	$> [i.t\check{i}i.t\check{e}]$	‘itxi egiten’

2. Fenomeno kateatu forman, hau da, beste fenomenoren batengatik bokalak elkartuta. Adibidean, EZ1 aplikatu ondoren:

3. **taula.** EZ2a fenomenoaren adibide gehiago fenomeno-katean

Sakoneko forma	Adiera	EZ1	EZ2a
$/ba.t\check{e}.r\check{e}/$	‘bat ere’	$[ba.t\check{e}.e]$	$[ba.t\check{e}]$
$/x\check{e}\check{n}.d\check{e}.a\ \check{O}a.\check{y}\check{o}.la/$	‘jendea dagoela’	$[x\check{e}\check{n}.d\check{e}.a\ a.\check{y}\check{o}.la]$	$[x\check{e}\check{n}.d\check{e}.a.\check{y}\check{o}.la]$
$/e.r\check{e}.\beta\check{a}i/$	‘ere bai’	$[e.e.\beta\check{a}i]$	$[e.\beta\check{a}i]$
$/n\check{e}.r\check{e}/$	‘nire’	$[n\check{e}.e]$	$[n\check{e}]$

Hernaniko hizkera sinkronikoki aztertzen badugu, kostata topatuko dugu kalitate bereko bi bokal elkarren ondoan dituen erro bat. Dirudienez, joera

oso egonkortua da halako errorik ez edukitzea, hiztun batzuen salbuespenak salbuespen⁹.

EZ2b: /n/-ren ezabaketa

$$\left[\begin{array}{c} + \textit{sudur.} \\ \textit{KOR} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / - \left[\begin{array}{c} + \textit{sudur.} \\ \textit{KOR} \end{array} \right]$$

Aldaera honetan, /n/ ezabatzen da:

/e.nun nai/	> [e.nu.nai]	‘ez nuen nahi’
/xun ni.tʃan/	> [xu.ni.tʃan]	‘joan nintzen’
/e.ʃan na.ɛt/	> [e.ʃa.na.ɛt]	‘esan nahi dut’

EZ2c: /s/-ren ezabaketa

$$\left[\begin{array}{c} + \textit{jarraitu} \\ \textit{KOR} \\ + \textit{hedatu} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / - \left[\begin{array}{c} + \textit{jarraitu} \\ \textit{KOR} \\ + \textit{hedatu} \end{array} \right]$$

Fenomenoaren aldaera honetan, /s/ ezabatzen da beste /s/ baten aurrean dagoenean. Adibideei erreparatuta, pentsa liteke ez hitzarekin eta /s/ fonemaz hasten diren aditz laguntzaileekin bakarrik gertatzen dela. Edonola ere, fenomeno nagusiaren beste aldaerek eta EZ2ren sarreran azaldutako adibideak erakusten dute, seguruena, kalitate bereko soinuaren ezabaketa bat dela hau ere, nahiz eta jasotako adibide hauetan kategoria morfologikoak errepikatu.

/eʃ ʃau.ðe/	> [e.ʃau.ðe]	
/eʃ ʃan/	> [e.ʃan]	‘ez zen’
/eʃ ʃe.ɔn/	> [e.ʃe.ɔn]	‘ez zegoen’
/eʃ ʃu.ten/	> [e.ʃu.ten]	

⁹ Grabazioetan adibide bakar-bakarra topatu dugu, hiztun bakarrak behin bakarrik ekoitzia: /le.ɛn/.

EZ3a: /ɛ/-ren ezabaketa (bokal baten ostean)

$$\left[\begin{array}{l} - \textit{goiko} \\ - \textit{atzeko} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / [- \textit{konts.}]_-$$

Fenomeno honetan /ɛ/ bokala ezabatzen da aurretik beste bokal bat due-
nean, ez badu nahaste handirik sortuko behintzat, MSEZ5 fenomenoan
jasotako /ʃu.t̪ɛn/ > [ʃu.ɛn] adibideko azaleko forman kasu. Ohikoena eza-
baketa bokal baten ondoren gertatzea da (EZ3a), baina bokal baten aurretik
ere gerta daiteke (EZ3b). Adibidez, oso ohikoa da *ere* partikulako lehen si-
laba ezabatzea. Ikus ditzagun adibide batzuk:

/ɛʃ.t̪a.ɛ.rɛ/	> [ɛʃ.t̪a.rɛ]	
/oj.ɛ.rɛ/	> [oj.rɛ]	‘hori ere’

Jarraian, morfosintaxiarekin zerikusia duten zenbait adibide aztertuko
ditugu. Hauetan morfema funtzionala den *-e-* ezabatzen da, hots, mugaga-
beko eta mugatu pluraleko *-e-*:

/guʃ.t̪i.ɛ.t̪an/	> [guʃ.t̪i.t̪an]	
/ur.t̪ɛ.ɛ.t̪an/	> [ur.t̪ɛ.t̪an]	
/ba.t̪ʃu.ɛ.kin/	> [ba.t̪ʃu.kin]	
/ʃor.t̪ʃi.ɛ.t̪an/	> [ʃor.t̪ʃi.t̪an]	
/be.ʃu.ɛ.t̪an/	> [be.ʃu.t̪an]	‘besoetan’

Ildo beretik, *hiru* eta *lau* hitzei inesibo marka gehitzean zer gertatzen den
aztertuko dugu. Bi hitzonen inesibo mugagabeko formak /i.ru.t̪an/ eta /lau.t̪an/
dira, estandarrean zein herriko hizkeran. Inesibo pluraleko formak, aldiz,
ezberdinak dira herriko hizkeran. Bi hitz horiek historikoki berekin dakar-
ten /r/-a ezabatzen da lehenengo (EZ1) eta, ondoren, /ɛ/-a (EZ3a). Ondor-
ioz, inesibo pluralak eta mugagabeak forma berdina hartzen dute herrian:

4. taula. EZ3a fenomenoaren adibide gehiago fenomeno-katean

Sakoneko forma	EZ1	EZ3a
/i.ru.r̥ɛ.t̥an/	[i.ru.ɛ.t̥an]	[i.ru.t̥an]
/lau.r̥ɛ.t̥an/	[lau.ɛ.t̥an]	[lau.t̥an]

Uste dugu horren ondorio bat zera dela, Hernaniko gazteek, euskara baituan egitean ere, ez dituztela ezberdintzen mugagabea eta mugatu plurala, haien jatorriko hizkeran ez direlako ezberdintzen EZ3a ezabaketa aplikatutakoan.

EZ3b: /ɛ/-ren ezabaketa (bokal baten aurrean)

$$[- \textit{goiko}] \rightarrow \emptyset / _ [- \textit{konts.}]$$

$$[- \textit{atzeko}]$$

EZ3a fenomenoan bezalaxe, /ɛ/ ezabatzen da, baina oraingoan bokal baten aurrean. Hona hemen adibide gutxi batzuk, ez baita EZ3a bezain emankorra:

/ʃɛ.a/	> [ʃa]	‘zara’
/be̞i.õa/	> [bi.õa]	‘begira’
/i.ʃa.t̥ɛ.i.c̥ɛu/	> [i.ʃa.t̥ɛ.i.cu]	‘izaten ditugu’

EZ4a: /a/-ren ezabaketa (bokal silabiko baten aurrean)

$$[+ \textit{atzeko}] \rightarrow \emptyset / _ [- \textit{konts.}]$$

$$[+ \textit{beheko}]$$

Fenomeno hau CVCV silaba-egitura mantentzeko erabiltzen da (Hyman 1975: 161-162), /a/ beste bokal silabiko baten aurrean dagoenean —hiato batean—, /a/ ezabatu eta egitura silabiko *naturala* lortzeko.

/or.ɖu.βa.ta.ta.ɛr.ɖi.taɫ.ɖi.ɛn/ > [or.ɖu.βa.ta.ta.ɛr.ɖi.taɫ.ɖi.ɛn] ‘ordu bat eta erdiak aldean’
 /ta.ɛ.βa.ɛ.ɛ/ > [ɛ.βa.ɛ.ɛ] ‘eta esaten dute’

Adibideetan ikusten den /a.e/ hiatoa ezabatzeko hiru konponbide dituzte hiztunek: EZ4 fenomenoak, EZ3ak (§ 3.1.1), eta IN1 (§ 3.1.5).

EZ4a fenomenoak, antza, salbuespen bat du: ezabatu beharreko /a/ hori morfema funtzional bat denean —erakuslea edo hitz funtzional baten bukaera—, ez da ezabatzen. Paradoxikoki, *eta* juntagailuko /a/ bai ezabatzen dute hiztun batzuek. Interesgarria litzateke, beraz, salbuespen hori zuzenago deskribatzea.

/ni.cu.la ɔ ɔ.la/ > *[ni.cu.lɔ ɔ.la] ‘nituela edo horrela’
 /a.ɛ.βa.ɛ.ɛ.βaɪ/ > *[a.ɛ.βa.ɛ.ɛ.βaɪ] ‘ateatzea ere bai’

Dena dela, *-a* itsatsia duten hitzek alboan beste erakusle bat dutenean, hiztun batzuek fenomenoak aplikatu eta /a/ ezabatzen dute:

5. taula. EZ4a fenomenoaren adibide gehiago fenomeno-katean

Sakoneko forma	EZ4b	EP1
/or.ɖu.ɡi.fɛ.rɛn.tʃi.a ɔ.rɛ.kin/	[or.ɖu.ɡi.fɛ.rɛn.tʃi ɔ.rɛ.kin]	[or.ɖu.ɡi.fɛ.rɛn.tʃi jɔ.rɛ.kin]
/ʎaʊ.βa ɔɪ/	[ʎaʊβ ɔɪ]	—

EZ4b: /a/-ren ezabaketa (bokalk silabiko baten ondoren)

[⁺ *atzeko*]
 [⁺ *beheko*] → Ø / [- *konts.*]₋

EZ4 fenomenoaren aldaera honetan, bigarren bokala (/a/) ezabatuz haus-tan dira hiatoak:

/b̥e.ar/	> [b̥ər]	‘behar’
/u̥s̥.t̥e̥.i.ḁt̥/	> [u̥s̥.t̥e̥.ɪ̥]	‘uste diat’
/e̥.ʂḁ.t̥e̥.i.ḁt̥/	> [e̥.ʂḁ.t̥e̥.ɪ̥]	‘esaten diat’

EZ5a: /i̥/-ren ezabaketa (monoptongatzea)

$$\left[\begin{array}{l} + \textit{goiko} \\ - \textit{atzeko} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / [- \textit{konts.}]_-$$

Izenburuak dioen moduan, fenomeno hau monoptongatze bat da funtsean, diptongo bateko bokal ez-silabikoa edo irristaria —azpi-fenomeno honetan /i̥/— ezabatzea. Aurreko fenomenoetan bezalaxe, CVCV egitura-rako joera berresten du horrek.

/ʂ̥e̥i.nek/	> [ʂ̥e̥.nɛk]	‘zeinek’
/o̥.ḁn/	> [o̥.an]	‘orain’
/i̥.e̥.ʂ̥ḁ.t̥e̥.ʂ̥i̥.an/	> [i̥.e̥.ʂ̥ḁ.t̥e̥.ʂ̥i̥.an]	‘egiten izaten ziren’

EZ5b: /u̥/-ren ezabaketa (monoptongatzea)

$$\left[\begin{array}{l} + \textit{goiko} \\ + \textit{atzeko} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / [- \textit{konts.}]_-$$

Badirudi /u̥/ bokal irristaria ezabatzeko prozesua egonkortuago dagoela, salbuespen lexikalizatuak salbuespen (esaterako, /lḁu̥.r̥.ɸ̥e̥i̥/ da zuzena eta ez /lar̥.ɸ̥e̥i̥/), oso kasu bakanetan entzuten direlako ezabaketarik gabeko formak. Gure susmoa da, entzutekotan, euskara estandarraren eraginez sortuak direla, gazteen ahotan gehiago entzuten direlako. Ziurrenik, diptongoetako /u̥/ bokal irristaria galdu egin zen Hernaniko sakoneko formatetik, hiztun helduen artean ia ez baita entzuten.

/lḁu̥.r̥.ɸ̥e̥i̥/	> [lḁ.r̥.ɸ̥e̥i̥]	
/ʂ̥ḁu̥.kḁ.t̥e̥n/	> [ʂ̥ḁ.kḁ.t̥e̥n]	‘zeukaten’

/ʃe.ne.ka.la/ > [ʃe.ne.ka.la]
 /ba.ʎe.ɲ.ɟen/ > [ba.ʎe.ɲ.ɟen]
 /lau.rɛ.un/ > [la.rɛ.un]
 /nau.ʃ.kan/ > [na.ʃ.kan] ‘neuzkan’

Monoptongatzea gauzatzeko beste modu bat ere aurkitu dugu, ez dena ezabaketa, /au/ silaba /o/ bihurtzea baino. Azken bi adibideetan, EZ3a aplikatutakoan, irristaria silabaz aldatu da. Fenomeno hau sakonago aztertu ez dugun arren, adibideak ekarri ditugu:

6. taula. Monoptongatzeko beste fenomeno baten adibideak fenomeno-katean

Sakoneko forma	Adiera	EZ3a	EZ5b
/a.ɲ.ɟi/	‘handi’	—	[o.ɲ.ɟi]
/a.ɟ.kin/	‘hauekin’	*[a.ɲ.kin]	[o.kin]
/a.ɟek/	‘hauek’	*[a.ɲk]	[o.k]

3.1.2 *Asimilazioak*

AS1: asimilazioak

AS1 fenomeno-sorta honetan, kontsonante koroari batzuek /i/ baten ostean jasaten duten sabaikaritzeak jaso ditugu. Izan ere, /i/ bokala itxia eta aurrekoa da, eta mihiaren bizkarra sabai gogorraren azpian kokatzen da; horregatik, /i/ bokalari «bokal sabaikaria» ere deitzen zaio. Prozesu fonologiko hutsak bilduko ditugu, ez semantikarekin lotutako sabaikaritze afektiboak.

AS1a: /t/-ren sabaikaritzea (asimilazioa)

KOR

$$\begin{bmatrix} - \text{jarraitu} \\ + \text{hedatu} \end{bmatrix} \rightarrow [- \text{aurreko}] / \begin{bmatrix} + \text{goiko} \\ - \text{atzeko} \end{bmatrix} - [- \text{konts.}]$$
 - ahots

/t̪/ —kontsonante koroari, herskari, lepokari eta ahostuna— /i/ bokalaren eta beste bokal baten artean sabaikaritu eta [c] bihurtzen da.

/p̪.li.ɬa/	> [p̪.li.ca]	
/deɣ.ku.β̪ri.t̪u/	> [deɣ.ku.β̪ri.cu]	
/ni.t̪un/	> [ni.cun]	‘nituen’
/i.te.a/	> [i.ce.a]	‘egiten da’
/ai.tei/	> [ai.cei]	‘aitari’
/a.ri.t̪u.ɬa/	> [a.ri.cu.ɬa]	
/i.tei.t̪u.ɛ/	> [i.cei.cu.ɛ]	‘egiten dituzte’

AS1b: /n/-ren sabaikaritzea (asimilazioa)

$$[+ \text{ KOR} \text{ } \begin{matrix} \text{KOR} \\ + \text{ sudur} \end{matrix}] \rightarrow [- \text{ aurreko}] / \begin{matrix} [+ \text{ goiko}] \\ [- \text{ atzeko}] \end{matrix} - [- \text{ konts.}]$$

/n/ sabaikaritu egiten da aurretik duen /i/ bokalarekin asimilatuta. Gainera, derrigorrezkoa da /n/aren ondoren bokal bat egotea, izan hitzean bertan edo hurrengo hitzean.:

*/ɕi.nan/	> [ɕi.nan]	‘zinen’
/a.ma.ir.xin ɔ̪/	> [a.ma.ir.xin ɔ̪]	‘ama birjin’
*/a.ki.n̪en/	> [a.ki.n̪en]	‘hekien’
/ur.te.kin eɣ.k̪on.du/	> [ur.te.kin eɣ.k̪on.du]	‘urterekin ezkondu’
/e.ɕin ai.ɕe.la/	> [e.ɕin ai.ɕe.la]	‘ezin haizela’

AS1c: /l/-ren sabaikaritzea (asimilazioa)

$$[+ \text{ albokari}] \rightarrow [- \text{ albokari}] / \begin{matrix} [+ \text{ goikoa}] \\ [- \text{ atzeko}] \end{matrix} - [- \text{ konts.}]$$

Azpi-fenomeno honetan /l/ kontsonantea sabaikaritu eta [ʎ] bihurtzen da, aurrekoen testuinguru berean. § 2.6 atalean azaldu dugu gazteek, [ʎ]-n sabaikaritu ordez, [j]-n egiten dutela. Hitzunen soinu-errepertorioaren ara-

berakoa da hori. Adibideotan [ʎ] adieraziko dugu, baina batzuetan [j] egi-
ten dute hiztunek. Praat edo antzeko programaren batekin aztertzea kome-
ni da:

/i.β̞i.li/	>	[i.β̞i.ʎi]	
/bi.la/	>	[bi.ʎa]	
/laŋ.gi.li.a/	>	[laŋ.gi.ʎi.a]	‘langilea’
/bi.lɔ.β̞a/	>	[bi.ʎɔ.β̞a]	

AS1d: /s̺/-ren sabaikaritzea (asimilazioa)

$$\begin{array}{c} \text{KOR} \\ [+ \text{jarraitu}] \rightarrow [- \text{aurreko}] / [+ \text{goiko}] - \\ - \text{hedatu} \quad \quad \quad [- \text{atzeko}] - \end{array}$$

Aurreko azpi-fenomenoen moduan, /s̺/ sabaikaritu eta /f/ bihurtzen da
aurretik /i/ bat duenean. Adibideetan aurkeztuko ditugun forma asko le-
xikalizatuta daude dagoeneko:

/bi.ʂi.ʎu/	>	[bi.fi.ʎu]	
/lajs̺.t̺er/	>	[lajf.t̺er]	‘laster’
/i.ʂi.lik/	>	[i.fi.lik]	
/i.ris̺.t̺e/	>	[i.rif.t̺e]	‘iristen’

AS2: [β̞]-ren ahostuntzea (asimilazioa)

$$\begin{array}{c} \text{EZP} \\ [+ \text{jarraitu}] \rightarrow [- \text{jarraitu}] / [- \text{ahots}] - \\ + \text{ahots} \quad \quad \quad [- \text{ahots}] - \end{array}$$

Fenomeno honetan, [β̞] —/b/ fonemaren alofono hurbilkaria— herska-
ri ahoskabe bihurtzen da, hots, [p], aurretik duen kontsonante ahoskabe
batekin asimilatuta.

AS4b: /ɛ/ → [a] joera (aurreko /a/ batekin asimilatuta)

$$\left[\begin{array}{l} - \textit{goiko} \\ \mathbf{v} \textit{atzeko} \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{l} + \textit{atzeko} \\ + \textit{beheko} \end{array} \right] / \left[\begin{array}{l} + \textit{atzeko} \\ + \textit{beheko} \end{array} \right] [+ \textit{konts.}]$$

Aurreko azpi-fenomenoaren bidetik, /ɛ/ [a]-ra asimilatzen da, oraingoan /a/ aurretik duenean, tartean kontsonante bat edukita.

/ba.ʂɛ.ri/	>	[ba.ʂa.ri]	
/ba.ʂɛ.ɾɛ.a/	>	[ba.ʂa.ɾɛ.a]	'bazterrera'
/ba.ʂɛ.kin/	>	[ba.ʂa.kin]	'bazekien'

3.1.3 *Disimilazioak*

DI1: /ɛ/ → [i] disimilazioa

$$\left[\begin{array}{l} - \textit{goiko} \\ - \textit{atzeko} \end{array} \right] \rightarrow [+ \textit{goiko}] / - [+ \textit{atzeko}]$$

Fenomeno oso emankor honetan, /ɛ/ bokala [i] bihurtzen da ondoren atzeko bokal baten duenean.

/kɔ.ɾi.ɛ u.a/	>	[kɔ.ɾi u.a]	'auto hurra'
/pa.ʂɛ.a.tʂɛn/	>	[pa.ʂi.a.tʂɛn]	
/bi.ɔ.ɛ.an/	>	[bi.ɔi.an]	
/al.dɛ.an/	>	[al.di.an]	

Fenomenoak salbuespen bat du. EZ1 ezabaketaren ondorioz (§ 3.1.1), kasu-morfemaren batean /e.a/ silabak geratu baldin badira, ez da DI1 disimilazioa aplikatzen. Uste dugu entzulearen mesedetan egiten dela hau, silaba horien morfologia errazago ezberdin dadin:

/ba _g .ka _l .t _ʃ e.a xun/	> */ba _g .ka _l .t _ʃ i.a xun/	‘bazkaltzera joan’
/a.ʒi ʒi.a.nə.a.ko/	> a.ʒi */ʒi.a.ni.a.ko/	‘hasi zirenerako’
/ka.lə.a x _u a.tə.ko/	> */ka.li.a x _u a.tə.ko/	‘kalera joateko’
/i.t _ʃ a.lə.tik i.t _ʃ a.lə.a/	> i.t _ʃ a.lə.tik */i.t _ʃ a.li.a/	‘itzaletik itzalera’

Aldiz, /e.a/ silabak kasu absolutiboan baldin badaude, DI1 fenomenoa aplika daiteke, nahiz eta ez den derrigorrezkoa ezohikoa:

/mo _ʃ .ko.re.ʃan e _ʃ i.βil.t _ʃ e.a/	> [...] /i.βil.t _ʃ i.a/	
/o.βi.a ɔ _ɕ u o.ni ɔ _ɕ .na e _ʃ .pli.ka.t _ʃ e.a/	> [...] /e _ʃ .pli.ka.t _ʃ i.a/	‘hobea dugu honi dena esplikatzea’
/t _ʃ in.t _ʃ o i.ʒa.tə.a/	> [...] /i.ʒa.ti.a/	‘txintxoa izatea’

DI2: /o/ → [u] disimilazioa

[+ atzeko] → **[+ goiko]** / **[- konts.]**
[- beheko]

DI1 disimilazioren oso antzekoa da disimilazio hau, emankortasunean ere bai. Honetan, /o/ [u] bihurtzen da ondoren beste bokal bat duenean.

/t _ʃ on.t _ʃ .a.na/	> [t _ʃ on.t _ʃ .a.na]	‘tontoa izatea’
/t _ʃ i.p _o o _r .t _ʃ a/	> [t _ʃ i.pu o _r .t _ʃ a]	‘tipo horretara’
/x _o .an/	> [xu.an]	‘joan’
/al.d _r e.β _e .ʒa.ɥ _o .a/	> [al.d _r e.β _e .ʒa.ɥu.a]	

DI3a: /a/ → [ɛ] joera (ondorengo /a/ batekin disimilatuta)

[+ atzeko] → **[- goiko]** / **-(+ konts.)**
[+ beheko] **[- atzeko]** **[+ beheko]**

Bi /a/ elkarrengandik gertu agertzean, lehena [ɛ]-ra disimilatzen da, tartean kontsonante bat izan edo ez. Adibide gutxi batzuk jaso ditugu, lexikalizatu gisa interpreta litezkeenak:

/ɛr.ɖa.raʃ/ > [ɛr.ɖɛ.raʃ]
 /ɛuʒ.ka.raʃ/ > [ɛuʒ.kɛ.raʃ]

Aldiz, badugu lexikalizatuta ez dagoen adibide bat fenomeno kateatu moduan. Hitzunegandik jasotako forma honetaz beste, /i.ka.ri/ forma ere entzuten da, sakoneko formaren gainean EZ1 eta EZ2 birritan aplikatuta sortua.

7. taula. DI3a fenomenoaren adibide gehiago fenomeno-katean

Sakoneko forma	DI3a	EZ1	EZ2
/i.ka.ra.ʎa.ri/	[i.kɛ.ra.ʎa.ri]	[i.kɛ.a.a.ri]	[i.kɛ.a.ri]

DI3b: /a/→[ɛ] joera (aurreko /a/ batekin disimilatuta)

$\left[\begin{smallmatrix} + \textit{atzeko} \\ + \textit{beheko} \end{smallmatrix} \right] \rightarrow \left[\begin{smallmatrix} - \textit{goiko} \\ - \textit{atzeko} \end{smallmatrix} \right] / \left[\begin{smallmatrix} + \textit{atzeko} \\ + \textit{beheko} \end{smallmatrix} \right] (+ \textit{konts.})_-$

Aurreko azpi-fenomenoaren prozesu bera gertatzen da hemen, baina /a/ aurrean dagoenean, kontsonanteren bat tarteko egon daitekeela. Bi adibide besterik ez ditugu jaso:

/pa.ʒa ni.tun/ > [pa.ʒɛ ni.cun] ‘pasa nituen’
 /eʒ.pa.na/ > [eʒ.pa.ɲɛ]¹⁰ ‘Españia’

DI4: /ɛ/→[a] joera (aurreko /ɛ/ edo /i/ batekin disimilatuta)

$\left[\begin{smallmatrix} - \textit{goiko} \\ - \textit{atzeko} \end{smallmatrix} \right] \rightarrow \left[\begin{smallmatrix} + \textit{atzeko} \\ + \textit{beheko} \end{smallmatrix} \right] / \left[\begin{smallmatrix} - \textit{atzeko} \\ + \textit{beheko} \end{smallmatrix} \right] (+ \textit{konts.})_-$

¹⁰ [ɲ]-aren ordez [j] egin izana fonetikoki ulertu behar da, seguru aski akats gisa.

Aurretik /ɛ/ edo /i/ bat daukanean, /ɛ/ disimilatu eta [a] bihurtzen da. Hona hemen adibide batzuk:

/bɛ.ʃɛ.la/	> [bɛ.ʃa.la]	‘bezala’
/ɛ.ɥuɛr.ɔ̃in/	> [ɛ.ɥuɛr.ɔ̃in]	‘eguerdian’
/ɔ̃u.ɛ.nɛj/	> [ɔ̃u.ɛ.naj]	‘dutenei’
/pin.tʃɛ.kin/	> [pin.tʃa.kin]	‘pintzekin’
/u.mi.ɛn.tʃa.ko/	> [u.mi.an.tʃa.ko]	‘umeentzako’

Adibide gehiago topatzeko fenomeno kateatuetara jo behar dugu:

8. taula. DI4 fenomenoaren adibide gehiago fenomeno-katean

Sakoneko forma	DI4	EZ1
/ɛ.rɛ.nɛ.ɥun/	[ɛ.ra.nɛ.ɥun]	[ɛ.a.nɛ.un]
/ɛ.ʔɛr.ki/	*[ɛ.ʔar.ki]	[ɛ.ar.ki] ¹¹

Iturria: geure ikerketa.

3.1.4 Ahultzeak

AH1: /r/→[r] ahultzea

- *jarraitu*
 [KOR] → [+ *hedatu*] / [- *konts.*]
 - *hedatu*

Bokal baten osteko /r/-a ahuldu eta [r] bihurtzean datza fenomeno hau. Hedatutasuna da aldatzen den ezaugarria, apikari izatetik lepokari izatera igarotzen baita. Gainera, /r/ ekoizteko, hobian gutxienez bi kolpe azkar egi-ten dira, hersketa laburrak, alegia. /r/, aldiz, hersketa txiki bat edo are igurz-

¹¹ Nahiz eta ez dugun grabazioetan jaso, disimilazio hau *eder* hitzaren erroan bertan gertatzen da besteak beste, eta jada /ɛ.ar/ da sakoneko forma, hiztun askorentzat lexikalizatua.

te azkar bat da, oso iraupen laburrekoa. Horregatik guztiagatik, ahultze gisa ulertzen dugu prozesu hori.

/ʒu.ru.mu.ru.a.kin/	> [ʒu.ru.mu.ru.a.kin]	‘zurrumurruarekin’
/ʒe.ri/	> [ʒe.ri]	‘zeri’
/bi.ra.ɔ.ɲak/	> [bi.ra.ɔ.ɲak]	‘birraitonak’

Bigarren adibidea sinkronikoki aztertuz gero, konturatuko gara «zer» hitz gramatikaren sakoneko forma /ʒer/ dela Hernaniko hizkeran, ez /ʒer/, hitz eratorrietan beti agertzen baita /r/: /ʒe.rɛk/, /ʒe.rɛ.kin/, /ʒe.ri/, etab. Gure analisiaren arabera, coda silabikoan /r/ [r] bihurtzeko euskal joeraren ondorio lexikalizatua da hori.

AH2: /ʒ/ → [r] errotazismoa (ahultzea)

+ <i>jarraitu</i>
<i>KOR</i>
[+ <i>hedatu</i>] → [- <i>albokari</i>] / [- <i>konts.</i>]
+ <i>ahots</i>

Errotazismoa da fenomeno honen funtsa, /ʒ/ ahuldu eta [r] bihurtzea. Bi kontsonanteak hurbilkariak izanda, argitu beharra ikusten dugu /r/ askoz ere ahulagoa dela laburragoa delako. [r] – *hedatua* bada ere, ez dugu fenomenoan adierazi, euskal errepertorio fonologikoan ez dagoelako – *albokari* + *hedaturik*; hau da, – *albokari* dela esatea nahikoa da kontsonantea deskribatzeko.

Fenomeno-kate batean jaso dugu adibide bakarra:

9. taula. AH2 fenomenoaren adibide gehiago fenomeno-katean

Sakoneko forma	EZ5b	AH2
/ʒe.ɲ.ðɛn/	*[ʒe.ðɛn]	[ʒe.rɛn]

AH3: afrikatuak frikari bihurtzea (ahultzea)

KOR
[-jarraitu] → [+jarraitu]
+ laxaketaluzakorra

Fenomeno honetan, /t͡s/ eta /t͡ʃ/ afrikatuek herskaritasuna galtzen dute —kontsonantearen zati den /t/ galtzen da¹²— eta beren erlatibo frikatu bihurtzen dira: [ʃ]¹³ eta [s]. Fenomenoak ez du testuinguru zehatzik aurretik hainbat soinu eduki ditzakeelako, besteak beste, /r/, /n/, bokal bat eta, agian, /l/ ere bai.

/si.t͡sai.t͡ʃen/	> [si.ʃai.t͡ʃen]	‘zitzaidan’
/pɛn.t͡sa.tu/	> [pɛn.ʃa.tu]	
/ar.ɖa.t͡sa/	> [ar.ɖa.ʃa]	
/gu.ru.t͡sa.t͡ʃe/	> [gu.ru.ʃa.t͡ʃe]	‘gurutzatzen’

AH4a: herskari ahoskabeen ahostuntzea (ahultzea)

[-jarraitu] → [+jarraitu] / [+ahots]_
[-ahots]

Datozen bi azpi-fenomenoak (AH4a eta AH4b) asimilazioak dira berez, baina emaitza ahultzea da. Horregatik sartu ditugu atal honetan. Fenomeno honetan, /p/ eta /t/ herskari ahostun koroariak eta /k/ herskari dortsala, aurretik bokal bat dutenean, hurbilkari ahoskabe bilakatzen dira, hots, [β], [ŋ] eta [ʎ].

/al.ɖa.pa/	> [al.ɖa.βa]	
/gɔ.rɔ.t͡ʃa.t͡ʃe.ʎi.t͡ʃa.rak/	> [gɔ.rɔ.t͡ʃa.ŋe.ʎi.t͡ʃa.rak]	‘gorrotxategitarrak’
/t͡ʃin.t͡ʃɔt͡ʃ.ku.a/	> [t͡ʃin.t͡ʃɔt͡ʃ.gu.a] ¹⁴	‘txintxokoa’

¹² Kontsonantearen zati bat bakarrik galtzen denez, ez da ezabaketa, ahultzea baizik.

¹³ /ʃ/ deskribatzeko ez dugu adieraziko +jarraitu KOR +karrankaria denik, euskal fonemetan ez baitago /θ/, +jarraitu KOR -karrankaria. Bistan denez, formuletan ekonomiari eman diogu lehentasuna.

¹⁴ Adibide honetan, bigarren silaba bukaerako /t͡ʃ/ ekoizpen-akatsa da, totalka moduko bat; argi nabaritzen da grabazioa entzutean. Silaba ahoskabe akastu horrekin asimilatuta, adibide honetan /ʎ/ ordeztu /g/ egin zuen hiztunak, baina fonetiko ulertu behar da.

AH4b: jarraitu ahoskabeen ahostuntzea (ahultzea)

$$\begin{array}{c}
 + \textit{jarraitu} \\
 [- \textit{ahots}] \rightarrow [+ \textit{ahots}] / [- \textit{konts.}]_ \\
 \textit{DOR}
 \end{array}$$

AH4a fenomenoaren aldaera honetan, /x/ —jarraitu ahoskabe dortsala— ahostundu egiten da bokal baten ostean, eta [ʏ] bihurtu. Pentsa liteke halako kontsonante dortsaletan ez ezik, beste jarraitu ahoskabe bazuetan ere gerta litekeela fenomeno, baina euskal errepertorioan /x/ eta [ʏ] dira ahostasuna trukatzten duten jarraitu bakarrak. Gaizki-ulertuak ekiditeko, zehaztasunez adierazi nahi izan dugu fenomeno. Hona hemen jaso dugun adibide bakarra:

$$/m\text{̄}e\text{̄}n.\text{̄}d\text{̄}i.a \text{̄}x\text{̄}uan/ \quad > \quad [m\text{̄}e\text{̄}n.\text{̄}d\text{̄}i.a \text{̄}y\text{̄}uan] \quad \text{‘mendira joan’}$$

3.1.5 *Indartzeak*

IN1: /i/-ren indartzea

$$\begin{array}{c}
 [+ \textit{goiko}] \\
 [- \textit{atzeko}]
 \end{array}
 \rightarrow
 \left[
 \begin{array}{c}
 \textit{KOR} \\
 + \textit{jarraitu} \\
 - \textit{aurreko}
 \end{array}
 \right]
 /
 [\textit{konts.}]_ [- \textit{konts.}]$$

Indartze-fenomeno hau nahiko hedatuta dago eta herriko hizkeren ezauzgarri bereizgarri nabarmenetako bat da. Fenomeno honetan /i/ bokala —silabikoa edo irristaria— [j] bihurtzen da bokal artean. Ez da EP1 fenomenoarekin (§ 3.1.6) nahastu behar.

$$\begin{array}{lll}
 /b\text{̄}e\text{̄}i.ak/ & > & [b\text{̄}e\text{̄}.j\text{̄}ak] & \text{‘behiak’} \\
 /g\text{̄}e\text{̄}.q/ & > & [g\text{̄}e\text{̄}.j\text{̄}q]^{15} & \text{‘gehiago’}
 \end{array}$$

¹⁵ Adibide honetan, -ago atzizkia -o bihurtu da, hala suertatzen baita gehienetan fenomenoak kateatzearen ondorioz.

/e.ʂai.ɔ/ > [e.tʂa.jɔ]¹⁶ 'ez zaiο'
 /la.ʂai.a.ʎɔ/ > [la.ʂa.ja.ʎɔ]

Adibide gehiago ikusteko, zeinetan /i/ silabikoa den, fenomeno kateatuetara jo behar dugu:

10. taula. IN1 fenomenoaren adibide gehiago fenomeno-katean

Sakoneko forma	Adiera	EZ1	IN1
/be.l.ɖu.ra ʃi.ɛt/	'beldurra diet'	[be.l.ɖu.ra i.ɛt]	[be.l.ɖu.ra.jɛt]
/e.ɔn.ɖu ʃi.a/	'egon dira'	[e.ɔn.ɖu i.a]	[e.ɔn.ɖu.ja]
/auɳ.ɖi.a ʃi.ɛ.tɛ.la/	'handia diedala'	[auɳ.ɖi.a i.ɛ.tɛ.la]	[auɳ.ɖi.a.jɛ.tɛ.la]

Iturria: geure ikerketa.

3.1.6 Epentesiak

EP1: [j] sartzea (epentesia)

$$\emptyset \rightarrow \left[\begin{array}{c} KOR \\ +jarraitu \\ -aurreko \end{array} \right] / \left[\begin{array}{c} +goiko \\ -atzeko \end{array} \right] - [-konts.]$$

Fenomeno hau, /i/ baten eta beste bokal baten artean [j] sartzea, ez da IN1 fenomenoarekin (§ 3.1.5) nahastu behar, fenomeno ezberdinak baitira prozesu fonologikoei dagokionez: IN1ean jada badagoen soinu bat aldatzen da, eta honetan, inondik inora ere ez dagoen bat sartzen da jada badauden beste bi soinu bereizteko.

¹⁶ Bigarren silabako hasieran MSIN1 fenomeno (3.2.3) aplikatu da, baina ez dio mintzagai dugun fenomenoari eragiten.

Hortaz, hona hemen fenomeno honen adibide gutxi batzuk:

/bi.ɛk/	>	[bi.jɛk]	
/di.ɔ.ʂu/	>	[di.jɔ.ʂu]	
/ɛ.ʃi.a/	>	[ɛ.ʃi.ja]	
/di.fɛ.reŋ.tʂi.ɔ.rɛ.kin/	>	[di.fɛ.reŋ.tʂi.jɔ.rɛ.kin]	‘diferentzia horrekin’

Disimilazio hau bi helbururekin erabiltzen delako susmoa dugu. Alde batetik, entzuleak silabak eta haien banaketa hobeto uler ditzan, CVCV silaba-egitura errespetatuz. Bestetik, gaztelaniaren arau fonologikoetatik bereizteko ere erabiltzen dela pentsa liteke. Azken joera horren adibideak dira azpiko bi hauek:

/ko.lɛ.xi.ɔ/	>	[ko.lɛ.xi.jɔ]	‘kolegio’
/a.lɛ.ma.ni.a.tʂik/	>	[a.lɛ.ma.ni.ja.tʂik]	‘Alemaniatik’

Ahoskera-fenomenoen helburuez gehiago irakurtzeko, jo ondorioetara (§ 4).

3.2 Morfosintaxiarekin lotutako ahoskera-fenomenoak

Atal honetan azalduko ditugun fenomeno guztiak morfosintaktikoki baldintzatuak dira, hau da, hitz gramatikal edo morfema jakin batzuekin baterik ez dira gertatzen. Bestelakoan, nomenklatura eta metodologia berbera erabili dugu fenomenook deskribatzeko.

3.2.1 Morfosintaxiarekin lotutako ezabaketak

MSEZ1: aspektu burutugabeko /n/-aren ezabaketa

$$[\begin{array}{c} +\text{sudur} \\ \text{KOR} \end{array}] \rightarrow \emptyset / \#$$

Morfosintaxiarekin zerikusia duen fenomeno oso emankor hau aditzaren aspektu burutugabeen —hau da, *-t(z)en* atzizkian— aplikatzen da ondoren aditz laguntzaile bat edo partikula modal bat duenean —*ote* zalantzakoa, *omen* ebidentziala, *al* galderazkoa edo *baldin* baldintzazkoa—. Hona hemen adibide batzuk:

/a.ni.ma.ṭṣeŋ ge.a/	> [a.ni.ma.ṭṣe ʎe.a]	‘animatzen gara’
/e.ṣa.ṭeŋ ni.ṣu.na/	> [e.ṣa.ṭe ni.ṣu.na]	‘esaten nizuna’
/xuṇ.ṭa.ṭṣeŋ se.a/	> [xuṇ.ṭa.ṭṣeŋ se.a]	‘juntatzen zara’
/i.kuṣ.ṭeŋ ʔe.ṭe.na/	> [i.kuṣ.ṭe ʔe.ṭe.na]	‘ikusten dudana’

Adibideetan ikusten denez, atzizkiaren bukaerako sudurkari koroariak ezabatzen dira, beti ere ondoren aditz laguntzaile bat edo aipatutako partikula modalak dituenean. Bestela, ondoren aditz laguntzailerik edo aipatutako partikularik ez dagoenean —perpaua bukaeran dagoenean edo beste partikularen bat duenean—, ez da ezabaketarik gertatzen:

11. **taula.** MSEZ1 fenomenoaren argitzeko asmatutako elkarriketa-adibideak, forma akastuna adierazita

Esaldi bukaeran	Aditz laguntzailea duela ondoan
—Zertan ai ziñan ba?	—Nei etzait bate gustatzen. / *gustatze.
—Kozinatzen. / *Kozinatze.	—Ba nei gustatze zait.

Hiztunetako batek, kaleko adineko gizonak hain zuzen, ekoizitako esaldi batean ere alde hori ederki ikusi daiteke: /ni peṇ.ṭsa.ṭṣe nun a.ṗ.ra.ṭṣeŋ aṗ nin.ṭsa.la/ ‘nik pentsatzen nuen *ahorratzen*¹⁷ ari nintzela’.

MSEZ2: /a/ determinatzailearen ezabaketa

$$\left[\begin{array}{l} + \text{atzeko} \\ + \text{beheko} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / \left[\begin{array}{l} \pm \text{goiko} \\ \pm \text{atzeko} \\ (- \text{beheko}) \end{array} \right] - [+ \text{konts.}]$$

¹⁷ *aurrezten* esan nahi du, gaztelaniatik hartua.

Nahiko ohikoa den fenomeno honetan, morfema determinatzailea (erakuslea) den /a/ ezabatzen da aurretik /a/ ez den beste edozein bokal¹⁸ duenean eta ondoren kontsonante bat. Ikusi adibideak:

/a.kɛ.la.rɛ.an/	>	[a.kɛ.la.rɛn]	
/ɛ.rɔ.mɛ.ri.a βat/	>	[ɛ.rɔ.mɛ.ri βat]	
/gɔi.kal.ɔɛ.an/	>	[gɔi.kal.ɔɛn]	
/ɛ.ri.an/	>	[ɛ.rin]	‘herrian’
/ɔ.gɛi.ɬa βi.an/	>	[ɔ.gɛi.ɬa βin]	‘hogeita bian’
/iŋ.gu.ru.an/	>	[iŋ.gu.run]	
/gɛr.tu.kɔ.a.ʏɔ.a/	>	[gɛr.tu.kɔ.ʏɔ.a]	
/na.fa.rɔ.an/	>	[na.fa.rɔn]	‘Nafarroan’
/ʃɛ.krɛ.ɬu.ak/	>	[ʃɛ.krɛ.ɬuk]	

MSEZ3: bat hitzeko [β.] -ren ezabaketa (bi /a/-ren artean)

$$\begin{array}{c} \text{EZP} \\ [+ \text{jarraitu}] \rightarrow \emptyset / \left[\begin{array}{l} + \text{atzeko} \\ + \text{beheko} \end{array} \right] - \left[\begin{array}{l} + \text{atzeko} \\ + \text{beheko} \end{array} \right] \\ + \text{ahots} \end{array}$$

Hemen, *bat* determinatzaileko [β.] ezabatzen da bi /a/-ren artean dagoenean.

/preʃ.pɛk.ɬi.βa βa.ɬɛ.kin/	>	[preʃ.pɛk.ɬi.βa.a.ɬɛ.kin]	‘perspektiba batekin’
/ʃu.lɔ βa.ɬɛ.ɬi i.u:/	>	[ʃu.lɔ.a.ɬɛ.ɬi i.u:] ¹⁹	‘zulo batetik <i>uuu</i> (onomatopeia)’
/pɛr.ʃɔ.na βaɬ/	>	[pɛr.ʃɔ.na.aɬ]	‘pertsone bat’

¹⁸ Aurretik /a/ ez den edozein bokal izan behar duela diogu *alaba* hitza bezalako hitzetan ez delako -a- determinatzailekerik gehitzen, euskara batuan bezalaxe. Alabaina, jakin badakigu beste hizkera batzuetan *az* bukatzen diren hitzei -a- determinatzailea gehitu eta aurreko *a* hori disimilatzen dela. Esaterako, mendebaldeko zenbait euskalkitan /a.la.βa.a/ > [a.la.βɛ.a] egiten dute.

¹⁹ Adibide honen bukaeran MSEZ4’ fenomenoak aplikatu da, baina ez dio mintzagai dugunari eragiten.

MSEZ4: /k/-ren ezabaketa (morfema gramatikalen bukaeran, kontsonante aurrean)

DOR
[- *jarraitu*] → Ø / _# [+*konts.*]
- *ahots*

Hainbat morfema gramatikalen bukaerako /k/ ezabatzen da hurrengo hitza kontsonantez hasten bada, hain zuzen, *-tik* atzizkiaren, absolutibo pluralaren eta ergatiboaren bukaerakoak —azken bi kasuetan, ezabaketaren ondorioz ø morfema geratzen da—.

/goi.t̪ik be.ɾa/	> [goi.t̪i be.ɾa]	‘goitik behera’
/or.ðu.βi.ta.t̪ik sei.ta/	> [or.ðu.βi.ta.t̪i sei.ta]	‘ordu bietatik seietara’
/guʃ.t̪ik bo.ta.t̪ʃe.a/	> [guʃ.t̪i bo.ta.t̪ʃe.a]	‘guztiak botatzera’
/ur.t̪i.ak da.ma.kiʃ.ki.ɣu/	> [ur.t̪i.a ða.ma.kiʃ.ki.ɣu]	‘urteak daramakizkigu’
/biʃ.kai.ta.rak di.a/	> [biʃ.kai.ta.ra ði.a]	‘bizkaitarrak dira’
/ʃe.la.ɟak si.an/	> [ʃe.la.ɟa si.an]	‘zelaiak ziren’
/oik bi.ɟak/	> [oi βi.ɟak]	‘horiek biak’
/u.mi.ak ci.ki.ɟak di.ɛ.ni.an/	> [u.mi.a ci.ki.ɟa i.ɛ.ni.an] ²⁰	‘umeak ttikiak direnean’
/ik ba al a.ki.nen/	> [i βa al a.ki.nen]	‘hik ba al hekien’
/guk ge.nun/	> [gu ge.nun]	‘guk genuen’

MSEZ4': /k/-ren ezabaketa (morfema gramatikalen bukaeran, bokal aurrean)

DOR
[- *jarraitu*] → Ø / _# [-*konts.*]
- *ahots*

Aldaera honetan testuingurua baino ez da aldatzen, honakoan bokal baten aurrean gertatzen baita. Ez da inondik inora hain emankorra, seguruenan CVCV egituraren kontrakoa delako.

²⁰ Azken hitzaren hasieran EZ1 aplikatu da uneko fenomenoaren ostean.

/ʒu.lə a.t̪e.t̪i i.u:/	> [ʒu.lə a.t̪e.t̪i i.u:]	‘zulo batetik <i>iuu</i> (onomatopeia)’
/b̪er.ʒo.la.jak a̪i.cu/	> [b̪er.ʒo.la.ja a̪i.cu]	‘bertsolariak aditu’
/biʒ.kai.t̪a.rak e.t̪o.r.t̪ʂe.i.a/	> [biʒ.kai.t̪a.ra e.t̪o.r.t̪ʂe.i.a]	‘bizkaitarrak etortzen dira’
/x̪eɲ.ɗi.ak a.pro.β̪e.t̪ja.t̪u/	> [x̪eɲ.ɗi.a a.pro.β̪e.t̪ja.t̪u]	‘jendeak aprobetxatu’
/ɲik uʒ.t̪e/	> [ɲi uʒ.t̪e]	
/ɲik e.ʒau.t̪ʂe/	> [ɲi e.ʒau.t̪ʂe]	‘nik ezagutzen’
/ɲik i.ku.ʒi/	> [ɲi i.ku.ʒi]	

MSEZ5: /t̪/-ren ezabaketa (aditzeko morfema flexiboetan)

<i>KOR</i>	
[- <i>jarraitu</i>
	+ <i>hedatu</i>
]	→ ∅
- <i>laxaketaluzakorra</i>	

Modu indikatiboko NOR-NORK aditz laguntzaileko ergatiboko 3. pertsona pluraleko marka, /t̪/, ezabatu egiten da, /u/ eta /e/ artean dagoenean. Salbuespenak dira NOR *ni* edo *hi* duten aditz laguntzaileak.

/ʒu.t̪en/	> [ʒu.ɛn] ²¹	
/ɗu.t̪e.nai/	> [ɗu.ɛ.nai]	‘dutenei’
/ɗu.t̪e/	> [ɗu.ɛ]	
/xar.t̪ʂe.u.t̪e.na/	> [xar.t̪ʂe.u.ɛ.na] ²²	‘jartzen dutena’
/eɸ.ki.ko.u.t̪e/	> [eɸ.ki.ko.u.ɛ]	‘edukiko dute’

Ikusi daitekeenez, /t̪/ ezabatuta ere /e/ bokalak argi uzten du ergatibo plurala hirugarren pertsona pluralekoa dela. Absolutiboa plurala denean (objektu plurala), euskara estandarrean *z* bat gehitzen zaio *t* morfemari. Dena dela, gehikuntza berria da eta Hernaniko hizkeran ez dirudi sakoneko forman dagoenik. Horregatik, pluralean *z*-rik ere ez agertzea espero izatekoa da:

²¹ Hernanin, estandarreko *zuen* /ʒun/ da beti; beraz, ez da nahasgarria.

²² Azken bi adibideotan, EZ1 fenomenoak aplikatu da aditz laguntzaileko /ɗ/ ezabatzeke.

*/s̺i.t̺u.t̺en/	> [s̺i.t̺u.ɛ̃n]	‘zituzten’
*/i.β̺il.t̺ɕ̺ei.cu.t̺ɛ/	> [i.β̺il.t̺ɕ̺ei.cu.ɛ̃]	‘ibiltzen dituzte’
*/i.c̺ɛ̺i.cu.t̺ɛ/	> [i.c̺ɛ̺i.cu.ɛ̃]	‘egiten dituzte’

MSEZ6: /t̺/-ren ezabaketa (hitza gramatikalen bukaeran)

$$\left[\begin{array}{c} KOR \\ -jarraitu \\ +hedatu \\ -laxaketaluzakorra \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / _ \# [+kots.]$$

Hitz gramatikalen bukaerako /t̺/ ezabatzen da hurrengo hitza kontsonantez hasten bada. Aurkitu ditugun adibideetan, *bat* hitzaren edo orainaldiko lehen pertsonako aditz laguntzailearen bukaeran gertatu da:

/bat̺ ba.ʃan/	> [ba β̺a.ʃan]	‘bat bazen’
/ɛ̺.ʃa.t̺ɛ̺.it kɛ̺/	> [ɛ̺.ʃa.t̺ɛ̺.i kɛ̺] ²³	‘esaten dit <i>que</i> ’
/ɛ̺.ʃa.u.t̺ɛ̺et xɛ̺n.ɟ̺i.a/	> [ɛ̺.ʃa.u.t̺ɛ̺e xɛ̺n.ɟ̺i.a] ²⁴	‘ezagutzen dut jendea’

MSEZ7: /s̺/-ren ezabaketa (ez partikulan)

$$\left[\begin{array}{c} KOR \\ +jarraitu \\ [+hedatu] \\ +karrankari \\ -ahots \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / _ \# \left[\begin{array}{c} +sudur \\ KOR \end{array} \right]$$

ez hitzeko /s̺/ ezabatzen da /n/-z hasten den aditz laguntzaile bat da-goenean ondoren. Grabazioetan baldintza morfosintaktiko honen ebidentzia positiboak bakarrik daude, baina guk dakigunez Hernanin ez da zuzena /nɛ̺.kɛ̺ na.β̺a.i.t̺u/ > [nɛ̺.kɛ̺ na.β̺a.i.t̺u] egitea.

²³ Aditz laguntzailean EZ1 aplikatu da aurrena. Bestalde, /kɛ̺/ hori gaztelaniako esaldi baten hasiera da, kodealdaketa.

²⁴ Adibide honetan ere, hainbat fenomeno aplikatu dira: MSEZ2, EZ1 eta EZ2a. Aurrerago mintzatuko gara horren gainean.

asimilazio bera gerta litekeela ondoriozta daiteke, nahiz eta elkarrizketetan ez dugun halako adibiderik topatu. Hona hemen adibide batzuk:

/ʒuɲ ɬa/	> [ʒuɲ ɬa]	‘zuen eta’
/na.ɔɲ ɬa/	> [na.ɔɲ ɬa]	‘nengoen eta’
/ni.ʝo.ɬɛɲ ɬa/	> [ni.ʝo.ɬɛɲ ɬa]	‘nien eta’
/ɛ.ʒaɲ ɬa/	> [ɛ.ʒaɲ ɬa]	‘esan eta’

MSAS1': /t̪/-ren asimilazioa (bokal baten ostean)

$$\begin{array}{c} \text{KOR} \\ [- \text{jarraitu}] \\ [- \text{ahots}] \\ + \text{hedatu} \end{array} \rightarrow \begin{array}{c} [+ \text{jarraitu}] \\ [+ \text{ahots}] \end{array} / [\text{konts.}] -$$

Fenomenoaren aldaera honetan, *ta* partikulako /t̪/-k aurretik bokal bat duenean, /t̪/-a ahostun hurbilkari bihurtzen da —[ð̪]— bokal artean gertatzen delako. Adibide batzuk:

/i.ɬɛ.a ɬa/	> [i.ɬɛ.a ð̪a]	‘egitea eta’
/i.ku.ʒi.ɬa ɬa/	> [i.ku.ʒi.ɬa ð̪a]	‘ikusita eta’

MSAS2: /d̪/-ren ahoskabetzea (asimilazioa)

$$\begin{array}{c} \text{KOR} \\ [+ \text{jarraitu}] \\ [+ \text{hedatu}] \\ + \text{ahots} \end{array} \rightarrow \begin{array}{c} [+ \text{ahots}] \\ [- \text{jarraitu}] \end{array} / \left[\begin{array}{c} - \text{ahots} \\ \text{KOR} \\ + \text{jarraitu} \\ + \text{karrankari} \\ + \text{hedatu} \end{array} \right] -$$

MSAS1 fenomenoan ez bezala, fenomeno honetan aditz laguntzaile baten hasierako [ð̪]-a ahoskabe bihurtzen da —[t̪]— *ez* partikulako /s̪/-ren ondoren.

/e̞.ʧ̞.a.ka.ʃu/	> [e̞.ʧ̞.ta.ka.ʃu]	‘ez daukazu’
/e̞.ʧ̞.ʧ̞a/	> [e̞.ʧ̞.ta]	‘ez da’
/e̞.ʧ̞.ʧ̞u/	> [e̞.ʧ̞.tu]	‘ez du’
/e̞.ʧ̞.ʧ̞en/	> [e̞.ʧ̞.ten]	‘ez dun’

3.2.3 Morfosintaxiarekin lotutako indartzeak

MSIN1: /ʃ̞/-ren indartzea

KOR
 + *jarraitu*
 [+ *hedatu*] → [*jarraitu*] / [*ozen*] _
 + *karrankari*
 - *ahots*

Indartze honetan, /ʃ̞/ frikaria afrikatu bihurtzen da —/tʃ̞/—, hau da, *jarraitu* izatetik *ez-jarraitu* izatera pasatzen da. Soinu *ozen* baten ondoren gertatzen da, eta /ʃ̞/-a hasieran duen hitza aditz laguntzaile bat denean bakarrik.

Hemen adibide batzuk:

/e̞.ʧ̞.ʃ̞i.an/	> [e̞.ʧ̞.tʃ̞i.an]	‘egon ziren’
/i.ʃ̞an.ʃ̞i.an/	> [i.ʃ̞an.tʃ̞i.an]	‘izan ziren’
/in.ʃ̞u.ʧ̞en/	> [in.tʃ̞u.ʧ̞en]	‘egin zuten’
/e̞ʃ̞ al.ʃ̞an/	> [e̞ʃ̞ al.tʃ̞an]	‘ez al zen’
/i.ʧ̞ual.ʃ̞ait/	> [i.ʧ̞ual.tʃ̞ait]	‘igual zait’

4. Ondorioak

Behin ahoskera-fenomenoak deskribatuta, haien gaineko hausnarketa batzuk plazaratuko ditugu atal honetan. Zehaztasunetik orokortasunerako ordenari *jarraitu*ta, lehenik hainbat ohar eta hausnarketa labur partekatuko ditugu. Ondoren /e̞/ edo /a/ bokalerako joeraz mintzatuko gara eta, gero, fenomenoaren erabilera-helburuez jardungo dugu. Azkenik, fenomenoaren era-

bilera hitzun-profil jakinekin lotuta ote dagoen azalduko dugu labur. Horren ondoren, ikerketaren haria nondik jarrai litekeen proposatuko dugu.

4.1 Fenomenoen gainean esatekoak

4.1.1 *Ohar laburrak*

Kaleko gazteen ekoizpenari erreparatuta, iruditu zaigu geroz eta gutxiago aplikatzen dutela EZ5a —/j/ irristariaren ezabaketa—, zenbait hitz lexikalizatu salbu. Aldiz, EZ5b fenomenoak —/u/ irristariarenak— kontrako joera argia erakusten du. Bestalde, ikusi dugu hitz baten erroan kalitate berdineko bokalik ez errepikatzeko joera dagoela, halako adibide bakarra jaso baitugu, eta behin bakarrik: /l̥.ɸ.n/. Horrez gain, coda silabikoan /r/ /r/ bihurtzeko joera ere nabaritu dugu (§ 3.1.4).

Ahoskera-eratorpenekin zerikusi txikiagoa badute ere, bi belaunaldien soinu- eta fonema-errepertorioan aldeak daudela argitu dugu fonema eta alofonoen atalean (§ 2.6). Txistukari frikatu eta afrikatuetan dago alde deigarriena, *z* eta *tʰri* esleitutako fonemak direla eta, gazteen fonemak lepokariak direlako, eta helduek apikariak egiteko joera dutelako. Horrez gain, [ʌ] eta [ɹ̥] soinuen belaunaldien arteko aldeaz ere mintzatu gara.

4.1.2 /ɸ/ edo /a/ bokalerako joeraz

Arreta bokalen arteko fenomenoetan jarriz gero, konturatuko gara /ɸ/ eta /a/ bokalek garrantzi berezia dutela: fenomeno askotan agertzen edo eraldatzen dira. Azaleko egiturako bokala dela eta —eraldatutakoa—, ibarreko hitzunek [ɸ] bokalerantz jotzen dute hainbat fenomenoren edo forma lexikalizaturen bidez, eta, kalekoek, aldiz, [a]-rantz egiten dute. DI3 eta AS3 fenomenoek [ɸ] joera islatzen dute, eta DI4 eta AS4 fenomenoek, [a] bokalerakoa. EZ3 eta EZ4 fenomenoek ere joera hori agerian uzten dute bi bokal horiek hiatoan elkartzen direnean. /b̥.ar/ hitza horren adibide argia da, ibarrean gehiago erabiltzen baita [b̥ɸ] eta kalean, [bar].

Banaketa geografikoaren ordez fokua adinean jartzen badugu, ikusiko dugu kaleko nagusiek ere [ɛ]-rako joera agertzen dutela —ibarreko nagusiek baino txikiagoa hala ere—, baina kaleko gazteen kasuan anekdotikoa dela. Adinekoen aztarna horrek pentsarazten digu [a] erabiltzea berrikuntza bat dela, inguruko hizkerak Hernaniko ezaugarri honetan eragina izango zutela; dena dela, uste hori ustela ez dela ziurtatzeko, halako alternantzien analisi diakroniko bat egitea komeniko litzateke.

4.1.3 *Erabilera-helburuaren ikuspegiak*

Ikergaiari zukua ateratzearren, pasarte honen bukaerako taulan ahoskeraren fenomenoak bi multzo handitan sailkatu ditugu, erabilera-helburuaren arabera: igortzeko erraztasuna eta ulertzekoa. Izan ere, bi jarrera horiek har litezke hizkuntzak eraldatzean: igorleak bere buruari bidea erraztea, edo hartzailearen alde egitea. Lehenean, esfortzu artikulatorio gutxi egitea igorle edo ekoizlearen mesederako da. Bigarrean, mezua ongi eta erraz entzun, ulertu eta prozesatzea da entzulearen interesa.

Bi interesak kontrajarriak dira askotan. Ekoizleak artikulatze-esfortzuak gutxitzeko joera izan dezake —asimilazioak, ahultzeak eta ezabaketak egitekoa—. Era berean, ekoizlearen aldeko prozesu horiek beren sakoneko formatik urruntzen dituzte hitzak eta entzuleari zailagoa suerta dakioko azaleko forman hitzaren sakoneko egitura antzematea; horrenbestez, baliteke gaizki ulertzea.

Oro har, sakoneko forma ez aldatzea entzulearen mesederako da, salbu aldaketak kate fonikoa era argiagoan helaraziko badu. Disimilazioa da horretarako prozesu apropos bat, aldamenen edo gertu dauden bi soinu berdin edo antzeko ezberdintzeko prozesua baita. Beste prozesu lagungarri bat hiatoan dauden bi bokalen artean epentesi kontsonantikoa egitea da (EP1), silabak ongi bereizteko aproposena den CVCV egitura (Hyman 1975: 161-162) bermatzen baitu. Horretarako beste modu bat bi bokaleko sekuentzietan bokal bat kontsonante bihurtzea (IN1) izan daiteke, entzulearen aldekoa. Halakoan harira, euskararen silabatzea ezin hobeto azaldu zuen Oñederrak (2004: 138-139) pasarte labur eta argigarri batean. Bertan

nabarmendu zuen, besteak beste, euskaraz garrantzitsuagoa dela silabatzea azentua baino. Eta, hain zuzen, lan honetan deskribatutako fenomeno asko silabatze egokia bermatzeko erabiltzen direla dirudi. Silaba egituraren nondik norakoetan sakontzeko, beste bi lan gomendatzen ditugu: *Euskararen silaba: egitura eta historia* (Jauregi 2007), eta *Fonologia, fonologiak: Fonologia Naturalari buruzko gogoetak J. I. Hualderen omenez* (Oñederra 2023), besteak beste, Donegan eta Stamperen (2009) ekarpenetan oinarritzen dena.

Ondorengo taulan, aipatutako bi interesen arabera sailkatu ditugu deskribatutako fenomenoak. Ekoizlearen aldeko prozesuak asimilazioak, ahultzeak eta ezabaketak dira; eta entzulearen aldekoak, epentesiak, disimilazioak eta indartzeak. Asimilazio batzuk ahultzaileak dira eta beste batzuk, ordea, indartzaileak. Azken horiek ekoizlearen zein entzulearen alde egiten dute, eta horregatik AS2 eta MSAS2 asimilazioak bi taldeetan sailkatu ditugu.

Guztira, 33 fenomeno dira ekoizlearen aldekoak, eta 9 entzulearen aldekoak. Guztien artean emankorrenak ekoizlearen aldekoak dira: EZ1, EZ2 (a, b, c) eta AS1 (a, b, c, d). Hala ere, entzulearen aldekoetan ere badaude oso emankorrak direnak, esaterako IN1, DI1 eta EP1.

12. taula. Deskribatutako fenomenoak erabilera-helburuaren arabera sailkatuta

Ekoizteko erraztasuna	Ulertzeko erraztasuna
AH1	DI1
AH2	DI2
AH3	DI3
AS1(a, b, c, d)	DI4
AS2	
AS3	EP1
AS3(a, b)	IN1
EZ1	MSIN1

EZ2(a, b, c)	
EZ3(a, b)	
EZ4(a, b)	
EZ5(a, b)	
MSAS1(ø,')	
MSAS2	
MSEZ1	
MSEZ2	
MSEZ3	
MSEZ4(ø,')	
MSEZ5	
MSEZ6	
MSEZ7	
MSEZ8	

4.1.4 Fenomenoak eta hiztun-profilak

Fenomenoak hiztun-profilekin alderatzean, ez dugu ikusi alde nabarmenik dagoenik fenomeno emankorrenen erabileran, profil guztietako hiztunengan baitira oso emankorrak. Hori banaketa geografikoaren arabera erabilerara estrapolatuta, ibarreko eta kaleko hizkerak funtsean nahiko antzekoak direla ondorioztatu dugu, eta dauden aldeak fenomeno ez hain emankorretan oinarritzen direla —hala ere, isoglosak sortzen dituztenak—. Alabaina, profilen arteko aldea nabariagoa da adinaren arabera geografia-aren arabera baino, aurreko azpiataletan ikus daitekeen moduan. Generoari dagokionez, ez dugu alde aipagarriarik topatu.

Fenomenoak hiztun-profilekin xeheago lotzeko beste metodologia bat erabiltzea komenigarria litzateke. Gainera, interesgarria iruditzen zaigu ha-

lako analisiak diakronikoki egitea eta ikuspegi soziolinguistikoa txertatzea, profilen arteko erabilera-aldeak nondik etor litezkeen argitzeko.

4.2 Gerora begirakoak

Hernaniko ahoskera-fenomenoen deskribapena izan da lan honetako ekarpen nabarmenena. Hari esker, herritarren hizkera errazago uler daiteke eta hainbat helburutarako onuragarria izan liteke. Esaterako, euskara estandarra ikastean eta irakastean, fenomenook ulertzea lagungarri gerta liteke ikasleen zenbait arazoren jatorria ezagutzeko, adibidez, inesibo plurala eta inesibo mugagabea ezberdintzeko zailtasuna EZ3a fenomenoan datzala jakiteko. § 3.1.1 atalean xeheago azaldu dugu bokal silabiko baten osteko /ɛ/ ezabatutakoan, inesibo pluralak eta inesibo mugagabeak forma berbera hartzen dutela, hau da, pluralaren markatzaile den *-e-* morfema ezabatzen dela eta herriko hizkeran bi numeroetarako forma *-tan* dela.

Lan honetan ez ditugu ikerketa-lanean landutako alor guztiak azaldu, hain zuzen, ez ditugu aurkeztu «hedakuntza mugatuko» fenomenoak, fonosemantika, fenomeno kateatuak²⁵ eta, horien barruan, morfema eta forma ia lexikalizatuen prosesudeskribapenak. Horiek guztiak beste lan batzuetan azal litezke, ikerketa eginda dago eta.

Aurretik aipatutakoez gain, beste hainbat ikerketa-bide urra litezke. Esaterako, interesekoa iruditzen zaigu aztertzea zein fenomeno dauden guztiz hedatuak eta zeintzuk diren hautazkoak. Horri lotuta, fenomenoak hiztun-profilekin xeheago lotuz gero, errazagoa litzateke herriko aldaerak era isolatuan deskribatzea; horretarako, metodologia egokitu beharko litzateke eta aldaera diatopikoez gain, aldaera diastratikoetan sakondu, generoa eta adina kontuan hartuta. Azkenik, erabilera-helburuen ildoan sakontzeko metodo egoki bat bilatzea berebizikoa litzateke. Geuk fenomeno-agerpenak zenbatu ditugu, hurbilpen soil gisa, baina ez zaigu era aproposa iruditzen, agian hiztunek fenomeno jakin batzuk maizago erabil-

²⁵ Atal oso bat eskaini ez badiegu ere, zenbait fenomenotan jasotako hainbat adibide fenomeno kateatuenak dira. Ikusi AH4b, DI4, EZ2a, EZ3a, EZ5b eta IN1enoak.

tzen dituztelako beren idiolektoak, hizketagaiak eta testuinguru diskurtsiboak baldintzatuta, batez ere morfosintaxiarekin zerikusia duten fenomenoz ari garenean.

Beraz, Hernaniko ahoskera-fenomenoen ikuspegi orokor bat ematea xede duen lan hau, hizkera ulertzeko lagungarria izateaz gain, beste ikerlan batzuentzako abiapuntu izan daiteke.

Bibliografia

AHOTSAK.EUS. (d.g.). «Ahotsak.eus Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea: Hernani». 2025eko maiatzaren 13an kontsultatua. <https://ahotsak.eus/hernani/>

AL-HINDAWI, Fareed Hameed eta AL-AADILI, Nesaem Mehdi (2018). «The basic tenets of generative phonology», *Journal of Education and Practice* 9 (1): 7-16.

ALTUNA, Olatz, IÑARRA, Maialen eta BASURTO, Asier (2022). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa: Euskal Herria 2021; Emaizten laburpen txostena*. Soziolinguistika Klusterra.

ARANBURU, Maddi (2016). «Bi hitz Hernaniko hizkeraren inguruan». Doktoretesia, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU). ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/21212>

BONAPARTE, Louis-Lucien (1869). *Le verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales selon les huit dialectes de l'Euskara*. A. Lamaignère.

CAMINO, Iñaki (1999). «Goñerriko Hizkera (I)», *Anuario Del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo: International Journal of Basque Linguistics and Philology* 33 (1): 5-78. Gipuzkoako Foru Aldundia.

CAMINO, Iñaki (2000). «Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeko», in *Dialektologia gaiak*, Koldo Zuazo (koord.). Arabako Foru Aldundia, Kultura Saila.

CAMINO, Iñaki (2015). «Oztibarreko mintzoaz eta haren lexikoaz», *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta* 119: 5-60. Nafarroako Gobernu. <https://doi.org/10.35462/flv119.1>

CAMINO, Iñaki (2016a). *Amiküzze eskualdeko heskuara*. Nafarroako Gobernu, Euskaltzaindia.

CAMINO, Iñaki (2016b). «Zaraitzuko uskara eta Ipar Euskal Herriko berrikuntzen hedadura», *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo* 50 (1-2): 257-300. <https://doi.org/10.1387/asju.22866>

CAMINO, Iñaki (2023). *Aturrialdeko heskuararen berrikuntzen kokagune geografikoa*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

CHAMBERS, Jack (2003). *Sociolinguistic theory: Linguistic variation and its social significance*. 2. ed. Blackwell.

CHOMSKY, Noam eta HALLE, Morris (1968). *The sound pattern of English*. Harper & Row.

DOBERA EUSKARA ELKARTEA (2020). *Hernaniko hitanoaren taulak*. Dobera Euskara Elkartea. 2026ko otsailaren 18an kontsultatua. https://euskaraaridu.wordpress.com/wp-content/uploads/2020/04/hernaniko-hitanoaren-taulak_behinbetikoa.pdf

DONEGAN, Patricia eta STAMPE, David (2009). «Hypotheses of Natural Phonology», *Poznań Studies in Contemporary Linguistics* 45 (1): 1-31. <https://doi.org/10.2478/v10010-009-0002-x>

EREINOTZUKO AUZO UDALA (d.g.). «Sorrera». 2026ko otsailaren 16an kontsultatua: <https://ereinotzu.eus/auzo-udala/sorrera/>

GAMINDE, Iñaki (1997). *Gatikako euskaraz*. Gatikako Gogoz Euskara Taldea.

GAMINDE, Iñaki (1999). *Bakio berbarik berba*. Labayru Ikastegia.

GAMINDE, Iñaki (2000). *Zamudio berbarik berba*. BBK.

GAMINDE, Iñaki (2001a). *Leioa berbarik berba*. Leioako Udala.

GAMINDE, Iñaki (2001b). *Meñaka berbarik berba*. Meñakako Udala.

GAMINDE, Iñaki (2001c). *Mungia berbarik berba*. Mungiako Udala.

GAMINDE, Iñaki (2002a). *Arrieta berbarik berba*. Arrietako Udala.

GAMINDE, Iñaki (2002b). *Jatabe berbarik berba*. Jatabeko Udala.

GAMINDE, Iñaki (2003). *Zaldibar berbarik berba*. Zaldibarko Udala.

GAMINDE, Iñaki (2004a). *Berango berbarik berba*. Berangoko Udala.

GAMINDE, Iñaki (2004b). *Bilbotarron euskararen zuzuan*. Asapala Kultur Elkartea.

GAMINDE, Iñaki, ELGOIBAR, Esther, GOIKOETXEA, Atotz, ASTOBIETA, Oihana, SANZ, Ziortza eta GAMINDE, Jon (2005). *Derioztarron euskara*. Derioko Udala, Albia-Berri, Tximintx euskara elkartea, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurilaritza.

GUSSENHOVEN, Carlos eta JACOBS, Haike (2017). *Understanding Phonology*. 4. ed. *Understanding Language Series*. Routledge, Taylor & Francis Group. <https://doi.org/10.4324/9781315267982>

HUALDE, José Ignacio eta ORTIZ DE URBINA, Jon (2003). «Segmental Phonology», in *A Grammar of Basque*. Mouton Grammar Library 26. Mouton de Gruyter.

HYMAN, Larry M. (1975). *Phonology: Theory and Analysis*. Holt, Rinehart and Winston.

IGLESIAS, Aitor (2014). *Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

JAUREGI, Oroitz (2007). «Euskararen silaba: egitura eta historia». Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.

JAUREGI, Oroitz eta OÑEDERRA, Lourdes (2015). *Euskal Fonetika- Fonologiaren ikasketarako gaiak*. EHUko Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetza. <https://ikasmaterialak.ehu.eus/hizkuntza-ikasketak/euskal-fonetika-fonologia>

LEIZARRAGA, Joanes (1571). *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria*. Pierre Hautin.

MARTÍNEZ-CELDRÁN, Eugenio, FERNÁNDEZ-PLANAS, Ana María eta CARRERA-SABATÉ, Josefina (2003). «Castilian Spanish», *Journal of the International Phonetic Association*, 33 (2): 255-59. <https://doi.org/10.1017/S0025100303001373>

MORENO CABRERA, Juan Carlos (2025). *Lengua, dialectos, hablas: crítica de la dialectoideología española*. Editorial Hojas Monfies.

OPENSTREETMAP. (d.g.). 2025eko maiatzaren 16an kontsultatua: <https://openstreetmap.org>

OIHENART, Arnaut (1638/1993). *Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitanicae*. Eusko Legebiltzarra.

OÑEDERRA, Lourdes (2004). *Fonetika fonologia hitzez hitz*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

OÑEDERRA, Lourdes (2023). «Fonologia, fonologiak: Fonologia Naturalari buruzko gogoetak J. I. Hualderen omenez», *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»* 57 (1-2): 739-755. <https://doi.org/10.1387/asju.25973>

ZUAZO, Koldo (1998). «Euskalkiak gaur», *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta* 78: 191-234. <https://doi.org/10.35462/flv78.1>

ZUAZO, Koldo (2000). *Euskararen sendabelarrak*. Alberdania.

ZUAZO, Koldo (2006). *Deba ibarreko euskara: dialektologia eta tokiko batua*. Badihardugu Euskara Elkartea.

ZUAZO, Koldo (2008). *Euskalkiak: euskararen dialektokak*. Elkar.

ZUAZO, Koldo (2010). *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Nafarroako Gobernua, Euskaltzaindia.

ZUAZO, Koldo (2013). *Mailopeko euskara*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

ZUAZO, Koldo (2018). *Sarako euskara*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

ZUAZO, Koldo (2021). *Baigorri eta Ortzaize ibarretako euskara*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

ZUAZO, Koldo eta GOITI, Urtzi (2016). *Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

